


Bartolo Ayerbe

# Zaarrak Berrituz



21303

GAS-128/97

# Zaarrak Berrituz

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

**Ugaldetxo auzoa**

**Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53**

**Fax (943) 49 35 48**

**20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)**

Bartolo Ayerbe

---

# Zaarrak Berrituz

---

Auspoa Liburutegia  
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-43-7

Legezko Gordailu: S.S. 1.064/96

## Itzaurrea

**A**ITAK “Nere Mundualdia” liburua larogei-  
tabi urterekin idazteak, nola ez?, arritu  
egin ginduan. Ez bait da edozein gai izaten,  
edade ortan, orrelako lan bat burutzeko.

Orain berriz, larogeitamar urte beteta, zer  
izango ta, beste liburua argitaratu, alajaña! Ni  
ez naiz nor edo ez naiz pertsonik egokiena egin-  
dakoa juzkatzeko eta meriturik baduan ala ez  
esateko. Ori zure esku gelditzen da, irakurle.

Lenengoa idatzi zuanean etzan aspertu, ezta  
gutxiagorik ere; alderantziz esango nuke: gus-  
toko lana izan, nonbait, eta alako ezin egon  
batekin gelditu zan. Ori dala-ta, denbora asko  
baiño leen asi zan:

— Berriz ere idazten asi bear diat. Oraindik  
bazeuzkeat nik gauzak esateko.

— Gauza geiago oraindik...? Zure bizitza  
guztia kontatu dezu-ta... Zer esan bear dezu  
orain?

— Leengo oiturak eta gauzak nola ziran jarri nai nitek. Oitura asko ta asko galdu dituk betiko, baiña nik, oraindik, gogoan zeuzkeat nere garaiko asko. Gaurko gazteek, badakik, ez ditek izan ikusteko eta entzuteko aukerarik kasik, eta nik idatzitakoa irakurtzen baditek, zerbait geiago jakingo ditek.

— Ez dago gaizki pentsatua; zu, gaiñera, Goierrian batipat eta emen ere bai, asko ikusia ezezik, lan asko proatutakoa zera, eta aaztu ez bazaizkizu beintzat, izango dezu zer kontatua...

— Aaztu neri...? Ez, motell, ederki gogorazten nauk orduko gauzetaz. Naiago nitek gañontzeko gauzak burua bezela baneuzka...

\* \* \*

Aita Zabala-ri jakin arazi genion ze pentsamentu zebilkian buruan eta, ari ere ondo irudititu zitzaionez, jo ta ke ekin zion lanari.

Arritzekoa ez danez, lenengoa baiño geiago kosta zaio. Bi gaxoaldi gogor ere izan ditu eta idazteari utzita egona da aldi batean. Denbora asko ez dala Erresidentzian gaxo zegoala, ordea, bere jaioterriko kontuak eta oiturak esaten ari zan batean “ori ez dezu idatzi, ori ez da azaltzen orain arte egindakoa, eta idatzi egin bear dezu” esan nion. Eta baita idatzi ere pozik eta azkar asko. Burua argi dauka adin ortarako.

Naastu egiten zan dexente batzutan, baiña, gaiak bereizi, idatzitakoak garbira pasa eta bere ordena baten jartzen lagunduz, ez degu





Bartolo Ayerbe.

arazo aundirik izan. Etorria izugarria dauka oraindik, eta idazteko perezarik ez.

“Zaarrak Berrituz” izeneko liburu ontan, izenak dion bezela, zera azpimarratu daiteke: berak txikitatik asita ikusi edo ezagututako oitura zaar eta ekintzak kontatzen ditu alde batetik. Bestetik, berriz, garai aietan baserrietan, denetan ez bada ere, geienetan, egiten ziran lanak eta nola egiten ziran esaten du. Beraz, orrek esan nai du txikitari edo gaztetan ikasi egin zuala zenbait lan berezi ere egiten.

Esan bear det, baitere, onera etorrita gero, gure mutiko eta gazte denboran ere egiten zituala aurrerago aurkituko dituzun lan klase berezi oietakoak; baiña askotan ikusi eta aitari laguntzen aritu arren, tamalez, guk ez genduan ezer askorik ikasi, egia esan.

Zuk, irakurle, ez dakit ze ondorio aterako dezun liburu au irakurritakoan. Neri onelako zerbait pentsatu arazten dit.

Gogoan eduki bear da Goierriko eta Beterriko baserrien artean, lana egiteko eta etekiña ateratzeko moduari dagokionez, alde dezentea zegoala eta dagoala. Goierrian, gure aitaren garaian batipat, laborea, gazta, mantekilla, ezti eta abar egiten saiatzen ziran; ura zuten diru iturri. Kalerañoko bidea, batetik, luzeagoa zuten geienek, eta oraingo ibiltzeko kotxe eta erosotasunik etzalarik, astoa kargatu eta saltzera astean bein edo, perira jetxi beste erremediorik etzeukatela. Ala moldatu bear derrigor.

Emen, berriz, baserritarrak beste era batera jokatzeko zuten; egunero beren tratua edo berdura eta esnearekin baliatzen ziran, eta asko dira oraindik, beren bizimodua ateratzeko. Beraz, ez da arritzekoa Goierrian gazta, mantekilla eta abar egiten ikasi bearra izatea eta emen ez.

Beste arrazoi bat: diru eskasia. Nere ustez, diru aukera danean, errezago erosten dira gauzak, "ez dik merezi egiten aritzeak" esanez. Baiña ez danean, jatekoak ezezik, saskiak, sokak, abarkak, galtzerdiak, lanerako zenbait apareju eta abar egin bear nai ta nai ez. Guri, neri beintzat bai, antzeko zerbait gertatzen zitzaigun, baiña jostalluekin; jolastu nai bagenduan, geronek egin bear.

Eta azkenik, gauzak egiten ikasteko denbora eta patxada bear dira, eta, gaur, ori falta zaigu. Presaka ta korrika bizi gera, ez degu pazientzirik artzen ezertarako, bi edo iru lan batera egin nai ditugu, eta toki bat baiño geiagotan egon nai degu aldi berean... Eta, nik esan bear banu, gure belaunaldiko gaitza da. Lan bolada izugarri ura etorri zanean asi ziran lana alde batera edo destajoan ematen eta itxurik gabeko orduak sartzen. Arek ekarri zuan, au onenbestean egin bearra, ori olako egunetarako bukatu bearra, lantokietako langilleak makina biurtzeraiñoko lan etekin kontrolak, eta abar.

Itz gutxitan esanda, ordulari, makina, kalkuladora, ordenadorea eta beste ainbat tresna aurrerakoien mendean jarri gera. Matematika

da nagusi, eta oien aurrean makurtu bearra dago gaurregun.

Orregatik, aien ezjakintasuna, —au ez da izango itz egokia agian, beren erara asko bait zekiten— atzerapena, erosotasunik eza, premi gorrian askotan, eta oiek denak kontuan edukita ere, ez ote litzaiguke komeni orduko bizimodu aren zenbait alderdi? Txarra izango al litzateke, aldi batzutan bederen, gaurkoa aaztuta, aien erara bizitzea? Ez nuke ezetzik esango.

Ea ze ondorio ateratzen dezun zuk, irakurle, eskuan dezun liburu apal au irakurritakoan. Dana dala, ilusioz beterik, borondate aundienarekin, eta ez aaztu larogeitamar urterekin egiña dala.

Orrela izanik, eta guzti oiek kontuan artuta, atsegin izango zaizulakoan gaude.

Laroitabikin liburutxo bat  
idatzi zendun aurrena,  
larogeitamar urte beteta  
orra emen bigarrena.  
Ainbeste urte bizkarrean da  
ori da ori aalmena,  
esanak-esan ez al da iñoiz  
ustutzen zure barrena?

*Joxe Aierbe*

---

## Antziñako ezkontza eta oiturak

**B**ATERA eta bestera ibiltzeko etzan orain-  
go konturik, eta gure garaiko gazte asko  
edo geienak errikoakin ezkontzen ziran. Berta-  
koa ezpazan, inguruko erriren batekoa, gertu-  
koa, izango zan neska edo mutilla. Famili arte-  
koak ere bai ezkontzen ziran prankotan.

Alkar ezagutzeko edo tratatzen asteko,  
errietako jaiak eta olakoak izaten ziran une  
egokiak, nik uste.

Txistulariak izaten ziran erriko jaietan eta  
illunabarrean, bein amizkilla jotzean, akabo  
txistu eta soiñuak.

Orduan, gaztedia, bakoitza bere etxeetara;  
eta neskatxak, geienak izaten zuten zeiniek  
lagundua, erriko edo inguruko. Modu ortan  
egiten ziran, askotan, adiskide neska-mutillak  
eta ala sortzen ziran ezkontzak.

\* \* \*

Ni, Goierrian, oso gutxitan ikusia naiz orduko ezkontza aiek. Arreoa eramateko oitura ura berriz, bein. Arreo-gurdia, andregaiak, ezkondu baiño egun bat edo bi aurretik eramaten zuan senargaiaren etxera.

Gurdia berezia izaten zan, etxekoa edo kanpokoa, eta soiñu aparta jartzen zioten gurdiari. Artean, gurdiak, egurrezko ardatzekoak nola bait ziran, ardatzean iru edo lau klasetako txanponak jartzen zizkieten. Eta zenbat txanpon, ainbeste soiñu ezberdin jotzen zituan gurdiak. Postura ontan jotzen zuan gutxi gorabera: Pliruuu ... ! Pluriii ... ! Plirupaiiii ... ! Oso dotore ematen zuan soiñua jo arazten zioten arreo-gurdiari. Gizona ere berezia izaten zan gurdia ala jartzeko. Arotza bezela. Etzuan edozeinek prestatzen alako gurdia.

Nik, egia esan, bein bakarrik ikusi nuan alako arreoa; gure auzoko batzuk ezkondu ziranean, eta ezkondu aurreko egun bat edo bi, gu lanean ari giñala ingurutik pasa ziralako. Nere bi anai zarrenak eta ni etxe berria egiteko egurrak zerratzen ari giñan, eta bide ertzera joan giñan ikustera, gurdi-soiñua entzun gendunean.

Gurdi ura oso dotore jarrita zegoan: oi berria, bear bezela jantzia, eta bere atzean baul aundi bat, eta gañean pardela. Baula ontziz betea joaten omen zan, sukaldean bear izaten diran ontzi klase guztiakin. Pardelean, berriz, erropa zuria. Gero, laia pareta, atxur berriak eta nik ez dakit zenbat gauz geiago.

Orduan esan oi zan, etxea berea zuten etxeko alaba bazan, erropa zuri eta ontzi gauzak,

dozenaka eramaten zituala. Eta, maizterrak baziran, dozena erdika. Ala zirala orduko oiturak. Gaur ez dago orrelakorik; aspaldi galdu ziran.

\* \* \*

Ezkontza kontuak baditut geiago ere neronek ikusiak, gaztetan Goierrian nintzan denborakoak. Garai aietan bazan oitura bat, eta oso aspaldikoa izan bear zuan. Iru pregoi botatzen ziran iru igandetan esposatu aurretik. Ezeren inpedimenturik edo trabik bazan ezkontza galerazteko, apaiza edo erretorearengana joan bear iru pregoi botatakoan. Denbora ematen zuan ori egiteko. Eta iñor azaltzen ezpazan, andik ogeitalau ordura ezkondu zitezken.

Beste au ere ezagutu nuan. Lendabiziko pregoia botatzen zuten jaiean, esposatzekoa zan mutilla, andregaiaren etxera joaten zan bere anai edo lagunakin bazkaltzera. Soiñujo-lea ere eramaten zuten eta bidean su-ziriak boteaz joaten ziran. Nik, bi aldiz ikusi nuan gauza ura, nere bi anai zarrenak ezkondu ziran.

Nere anai zarrenak errikoa, bertakoa, zuan andrea eta an joan giñan, gu, bost anai eta beste bizitzakoak ere bai, su-ziri edo etxaferoak boteaz kontentu asko! Laster galdu zala uste det oitura ori ere.

Bigarren anaia, berriz, Alkiza-ko Etxabe-Txiki baserrira esposatu zan. Beasain-go fabrikari zebillen lanean, baiña baserria geiago gusztatzen, nunbait. Ez dakit aien ezkontza nola

izan zan ain urrutira joateko. Garai aietan, nik uste det, bateon baten bidez egiña izango zala.

Nolanai ere, lenengo pregoia bota zuten igandean, Gaintza-tik Alkiza-ra joan giñan soiñu-jole ta guzti. Ez-ba, oso biaje erreza zalako, baiña gustoko tokian aldapik ez esan oi da, eta ura ere ala izango zan. Lenengo, Gaintza-tik Ordizi-ra oiñez joan bear; an treña artu eta Tolosa-ra; gero Tolosa-n tranbian sartu eta Anoeta-ra; andik Alkiza-ra, berriz, oiñez.

Kamiorik etzan artean Alkiza-ra, baiña etzitzaigun bide luzea iruditzen; luzeagotan ibiltzen oituta geunden. Anoeta-n trenaren gelto-kirik etzan orduan. Ala ere, pozik egin genduan biajea soiñu-jole ta guzti. Baita, gogorazten naiz Alkiza-ko plazan dantzán nola ibilli giñan. Su-ziririk ez genduan eramán egun artan.

\* \* \*

Geiago ere izango ziran, baiña bazan beste oitura edo ospakizun bat, neronek ikusia au ere: dote ematea nola egiten zan.

Garai aietan baserrietako neskatxa asko etxean jarduten zan lanean. Gure arreba zarrena ere, beti baserrian aritu zalarik, ondo ikasia zan baserriko berri, eta erriko mutil batekin esposatu zan, diru puska bat zuten tokira gañera.

Esposatuta etorri ziranean, eta urrengo jaiean edo, bazkari eder bat eman zieten senide, osaba-izebei eta auzokoei. Eta bazkal ondoan eman zion dotea gure aítak sui berriari, denen



bixtan, mai gañean utziaz. Ez dakit zenbat eman zion, baiña merezia izango zuan, nere ustez, etxean lan asko egiña baizan gaztetan. Diruak jaso zituanean, sui berriak eta aitagiarrerebak, gure aitak, esku eman zioten alkarri jendearen txaloak jasoaz. Alkarrekin egindako billera ura oso ondo egiña zala denak aitortu zuten eta jendea konforme gelditu zala uste det nik. Oitura arek segitu zuala esango nuke, Goierri aldean beintzat, nik andik aldeginda gero ere.

\* \* \*

Eta orain beste gauza bat aitatzeri noa, saill oni bukaera emateko. Gure gazte denboran baziran gizon batzuk ezkontzak egiten laguntzen ibiltzen ziranak. Baserriko neska-mutillei ezkontzeko bideak edo erreztasunak ematea zan beren eginkizuna. Ni neronek ezagutu nuan artan saiatzen zan gizon bat.

Baliarrain-goia zan gizon ura. Izketan oso egokia ta txukuna benetan, abogadu baten moduan itzegiten zuana. Maiora deitzen zioten gizon ari, eta esaten zuten bazituala lagunak artan ibiltzen ziranak, beste erri geiagotan ere.

Gure etxean, erriko pestak ziran egun batez bazkaltzen izan zan, eta an ezagutu nuan gizon ura. Arek eta bere lagunak etzuten beti-beti asmatuko. Aien lantegia ez baizan oso erreza, eta danen gustoa egiten kostako zala uste det. Legortearen ondoren euria egiten badu ere, ez da danen gustokoa izaten-da.

Orain esatera noan au ez dakit gertatua edo txistea dan. Ataun-en pasea dala entzun izan det. Len aitaturako gizon oietako batek ezkontza bidean jarri ditu neska-mutillak esanez: “Zuk olako baserriko atarira joan bear dezu, eta neskatxa bat aterako zaizu leiora. An egon zai bitartean. Ateratzen danean, urrengo igandeetan nun juntatu eta abar itzegingo dezute.”

Neska, kasu artan, etxerako asmoan zegoana omen zan, eta jakiña, mutillak kanpotik etorri bear.

Ala, esandako egunean, illunabarrean, jarritako ordurako joan da mutilla neskaren etxera, eta, denak Errosario Santua errezatzen... eta mutilla an, Errosarioa noiz bukatuko. Misterio guztiak bukatu ondoren, ez dakit zenbat Santuri errezatu eta errezatu ari omen ziran eta ordurako naikoa aspertuta mutilla.

Alako batean entzun omen zuan: “Ikulluko bazterreko txekor aundiñaren izenean, Aitagurea zeruetan... “ Orduan mutillak esan omen zuan:

-Ni onera ezkontzen banauk gau guztia errezatzen pasa bearko diat eta noan emendik etxera! Ni ez niotek arrapatuko eta or konpon ditezela nai duten bezela.

Etzan nunbait asko errezatzea gustatzen zitzaion oietakoa ura ere. Mutilzar gelditu omen zan azkenean. Neska ez, neska ezkondu zan, eta suerte ona izan gañera.

\* \* \*

Bukatzeko, iruditzen zait, len esan edo idatzi detan gizon aien antzekoak ez lirakela gaizki etorriko gaurko egunetan ere. Baiña ez luteke lan ederra artuko nere ustez, ez baita orain ia emakume gazterik aritzen lanean baserrietan; berez baserrian jaiok izan arren, eskola ikasi eta kalera joan naiago dute. Ez dute baserriko mutillakin ezer jakin nai.

Orra, etorkizun illuna baserriari etorri zaiona. Ondo izateko, berriz, baserrian bertan jaiotakoa bear duala esango nuke. Kalekoak ango lanak egin eta ondo eramatea zail xamarra ikusten det. Lan txarrak izango dira, beraz, gure baserrietan aurrerantzean. Orixe da nere iritzi apala.

Naiko kezkatu gaude guraso,  
elduak eta bai zarrak,  
ikusirik gaur baserrietan  
dozenaka mutilzarrak.  
Tristura ematen digu geroko  
ain etorkizun kaxkarrak;  
bertan sortua izan bear du  
nik uste baserritarrak,  
bestela indar artuko dute  
ote, sasi eta larrak.

---

## **Ezkontzaren inguruko beste zenbait kontu eta gertakizun**

**O**RDUAN ere etziran danak berdiñak izango, baiña guk ezagutu genitun apaiz jaun geienak oso serio artzen zituzten ezkontza kontuak. Errespeto aundia zioten sakramentu orri. Pregoiak asi aurretik galderak egiten zizkieten, gurasoen baimenik bai al zuten eta abar.

Dotriña esatera ere joan bear izaten zan zenbait apaizengana. Gure erriko erretoareak aginduta, ura ere alakoa zandana, ni neroni ere joandakoa naiz dotriña esatera. Gu, egun batean, iru matrimonio egin giñan, eta besteai ere berdin egin omen zizkioten galderak eta dotriña esan arazi. Ala esan ziguten beintzat.

Orain jarriko ditut gertaera batzuk. Au, emen, Donosti inguruko mutil bati gertatua da. Baserri on bateko semea gañera. Kanpoan

egiten zuan lana, igeltseritzan. Ondo-xamar irabaziko zuan, baserrian ari giñanak baiño geiago, noski. Dirua barra-barra eta arro ibiltzen omen zan. Dirua ona da eta bearrezkoa bizitzeko munduan; baiña batzuentzat onerako, eta besteentzat izan liteke kalterako ere. Eta mutil ari alako zerbait gertatu zitzaion, nunbait.

Ezkontzeko asmotan pregoietan zegoala, erriko erretore jaunak abixua artu zuan Goierri-ko neskatxa baten partetik, esanez berarekin esposatzeko agindua emana zegoala mutila. Eta jakiña, erretoreak, etzituala ezkonduko. Aien pregoiak alperrik izan ziran.

Gero mutil ura, lotsatuta edo, kanpora joan omen zan lanera. Badakit esposatu zala ere, baiña ez det uste oso bizitza pozgarria izan zuanik, eta gizon sasoikoa il zan. Jaungoikoa errukitsua dala esaten dute eta arekin ala izan bazan, zeruan izan dedilla opa diot nere partetik.

\* \* \*

Beste au neri kontatu zidan gizona bizi da oraindik. Larogeitamabi urtetik gora dijoala esan zidan, eta emaztea ere bizi du oraindik. Ez dakit seguru, baiña irurogei urtetik gora izango dira matrimonio egin zirala.

Ezkontza kontuak esaten ari giñala, ez dakit nungoa, baiña erri txiki bateko kontua zala esan zidan. Senar-emazteen artean gertatua. Aspaldikoa izango da, noski.

Matrimonia oso aserre omen zebillen alkarrekin, emaztea batez ere. Senarra edanean pasatu egiten, nunbait, askotan, eta esan omen zion emazteak:

— Ni ez naiz orrela biziko eta apartatu egingo gera; erretorearengana joango naiz ea zer esaten didan.

Eta senarrak:

— Bai, bai, joan nai dezunean eta esan...

Joan da erretorearengana, esan dio nola pentsatzen duan apartatzea senarrarengandik, eta orretarako zer egin liteken eta abar. Erretore jaunak orduan:

— Biar etorri olako ordutarako elizara, biok, eta erabakiko degu asuntua.

Ala, biaramonean, joan ziran biak eta espotsatu ziranean bezela jarri arazi omen zituan, bi silletan, alkarren ondoan, erretoreak. Gero artu ur bedeinkatua botatzeko isopua eta asi senar-emazte aiei kanka! bati eta kanka! besteari buruan jotzen. Eta orduan batek aiii... ! eta besteak aiii...! egiñaz, ala esan omen zuen emazteak:

— Noiz arte onela, apaiz jauna... ?

Eta apaizak erantzun:

— Biotatik bat ill arte, bestela ez dago apartatzerik!

— Ez, ez, biziko gera alkarrekin.... utzi ezai-guzu mesedez... —senar-emazteak, biak negarez buruari elduaz etxera joan omen ziran.

Andik aurrera oso ondo eta pakean bizitu omen ziran, senarrak geiegi edateari utzi ere

bai. Senar-emazteak apartatu naiean, eta nola apartatu erakutsi ziotenean erretore jaunak, orra pakeak egin arek azkar!

\* \* \*

Au ere entzun det orain berriro samar. Parrokiren bateko erretoreak egin omen zioten: aurra bataiatzeko asmotan joan elizara eta apaizak jakin nola bizi ziran elkarganatuak, ez esposatuak elizak agintzen duan moduan, eta etziotela aurra bataiatuko, ezkontzako sakramentua ez bazuten artzen. Elizak eta kristautasunak agintzen zuan bezela egin bear zirala gauzak.

Orduan, ezkontzeko konforme zirala esan omen zioten apaizari; eta esposatu ta aurra bataiatu, biak bertan eginda, konforme etxera matrimonia. Umil eta pozik gañera, beren aurrarekin.

Gaurko egunetan entzuten diran gauzakin, orrelako kasuak edo antzekoak, geiago ere gertatuko dirala esango nuke nik.

\* \* \*

Kontu auekin bukatzeko, orain dala illabete pare bat edo geixeago, ezkontza edo boda bat ikusi nuan eliza batean; eta esan nion nere ondoan zegoanari:

- Olako parejaren boda omen da.
- Bai, ala esaten dute.

Baiña alako aide txar batekin eman zidan erantzuna. Arek ezagutzen zituan, eta nik ere bai.

— Orain oien boda... ? Len ere naikoa egin-da daude, bai... —urrengo itzak.

Eta orduan nik erantzun nion:

— Ori ez dakit, baiña len neska-mutillak ziran; emendik aurrera, berriz, senar-emazteak izango dira. —eta ara zer erantzun zidan:

— Oiek txorakeriak dira, gizona...

Ixilik gelditu nintzan, ez nion geiago erantzun. Etzan oso gaztea ere, baiña gaur aren iritziko asko sortu zaigu gure inguruan.

Gure garaietan ezan orrelakorik. Nik, egia esan, ez nuan ezagutu matrimonio ezagunik apartatzen. Baiña entzun izan genduan, orduan ere, apartatutakoak bazirala, eta izengoiti bezela edo esaten zitzaien aiei *bizirik alargunak*. Eta pekatari zirala esan oi zan aiengatik.

Orain entzuten diran kontuak, berriz, nazka emateko modukoak dira, neretzat beintzat. Beste askorentzat ere ala izango dirala derizkiot, batez ere gu bezelako zar-abarrentzat.



## **Aur jaiotzak eta ondorengo oiturak**

**G**URE garaietan norbere etxeetan jaiotzen ziran aurrak. Aurra egitera etziran Erresidentzira edo ospitalera joaten orain bezela. Pratikantea ibiltzen zan partuetan laguntzen eta artan ezpazan, gaxoak bixitatzen izaten zuan lanik asko. Bi erritako lanak bakarrik egiten zituan: Zaldibi-koak eta Gaintza-koak.

Nik esan bear banu, ordea, praktikantearen laguntzarik gabe ere jaioko ziran aurrak orduan, auzoko emakumeak alkarri lagunduz eta al zan moduan. Baiña praktikantea joango zan, jaiotzerako ezpazan, andik laixterrera, jornal berezia izaten baizuan partu bakoitzeko. Erregali pranko ere biltzen zuala esaten zuten. Danak merezi zituan gizona zan ura, izan ere.

Orain dijoana neri gertatua da, artean jaiotetxean nintzala. Orduan alako kasuak etxe geiagotan ere gertatuko ziran, noski, baiña bakoitzak bereak izaten ditu gogoan. Gau bate-

an, gauerdi aldera, etxera ezkonduetako anaiak deitu zidan esanez:

— Joan bearko dek, ba, pratikantearen bila; partua diagu eta esaiok azkar etortzeko, mesedez, etxean bada beintzat.

Zaldibi-n bizi zan, esan bezela, eta gure etxea oso urruti andik, Gaintza eta Abaltziska-ko muga dago-ta. Gau illuna zan izugarri; eskerrak parol txiki bat bazala gure etxean, eta arekin joan nintzan.

Pratikanteak bazuan tinbrea sarrerako atean eta parolaren argiarekin billatuta jo nuan eta balkoira irten zan bereala esanez: “zer gertatzen da?” Nik esan nion partoa zala gure etxean eta lenbailen joateko agindua eman zidatela. Eta Gaintza-ko Artxueta-koa nintzala jakin arazi nionean: “Etzegok aldean, ala Jainkoa! Gu joateko jaioko dek jaiotzekoa...!”. Etzan umore txarreko gizona, erdi-bertsolari oietakoa gañera.

Ordubeteko bidea bazegon gutxinez, ori egunez; gauez berriz, askoz geiago. Urrutieneko baserria izango zan, nere ustez. Eskerrak ango bide-lasterrak ondo ikasiak geneuzkala. Ala ere iritxi giñan, orratik, jaioko baño lenago, baiña juxtu-xamar ibilli giñan, esan zutenez.

Bere egitekoak bukatu zituanean anaiak ordaindu zion tokatzen zan jorrala eta gogoan daukat amak ere lukainka ederra nola eman zion, eta denak pozik.

Gizon bikaiña ta jatorra zan, baiña makiña bat ibilli txar egiña bear zuan bi erri aietan. Berari deitzen zitzaion ia danerako, eta egin

kontu zenbat aur jaiotzen zan garai aietan etxe bakoitzean... Oso gauza gogorra bear zuan, naiz aparte pagatu, Ordizi-n bizitzen zan medikuari deitzeko. Nik ez nuan ezagutu ere, eta ala obe.

\* \* \*

Len nion bezela, jaioko ziran pranko praktikante edo medikurik gabe, etxeakoandreak alkarri lagunduta. Nik ezagutu nuan emakume bat berezia, gure errian jaiotza zanean laguntzen ibiltzen zana, eta uste det laguntza asko egiña zala inguruko baserrietan.

Nere beste anai batek —ura ere urrutiko baserrian bizitu zan— ala esan oi zuan: “gure etxean, geienak, praktikante edo mediku gabe jaiokak dituk”. Lau alaba eta iru seme zituan, sano askoak gañera.

\* \* \*

Beste pasadizo bat bada, jaiotzaren gañean au ere, oso ateraldi zelebrea tartean duala; eta nik ondo ezagutzen dedan famili batean gertatua gañera. Gauean omen zan. Partuko ordua iritxi da eta mediku billa joan bear. Ortarako, etxean urte askotan apopilo zegoan mutilzarra esnatu arazi eta mesedez medikuaren billa joango al zan galdetu ziotenean, ara nolako erantzuna jaso zuten:

—Orain al zerate nere bearrean? Lenago etzenuten nere bear aundirik! Joango naiz.

Gogo txarrez, noski, baña joan zan eta baita ekarri ere sendagillea. Gero, bukatu zuanean, etxera lagundu egin bear berriz, eta gau geiena joan-etorrian pasa bear izan zuan. Aiek ibille-rak! Gaur bezela telefonorik ez baizan, baserrietan beintzat, eta bideak ere alakoak... ibilli egin bear nola edo ala enkarguak egingo baziran.

Kontu geiago ere bazituan apopilo arek eta, lagun artean broman zeuden gau batean, jar-tzen da, ta:

— Bai al dakizute lengo aste ortan gure etxe-an bi bigantxak umeak egin dituztela? Bat bi ankekoak eta bestea lau ankekoak.

Senar-emaztearen lenengo aurra izaki, eta bigantxa ere umatzea tokatu aste berean. Izu-garrizko grazia egin omen zioten apopiloaren ateraldiak.

Onoko au ere berea da. Astean bein paga-tzen omen zuan apopilotza, eta egun batean astekoa ordaintzeko dirurik gabe gelditu. Eta esan omen zion etxekoandreak:

— Bai al dituzu milla peztakoaren kanbioak?

— Bai, baditut —etxekoandreak.

Orduan apopiloak:

— Ni baiño obeto zaude, beraz, astea pasa-tzeko. Nik ere pozik pagatuko nizuke milla pezta baneuzka, baiña urrengo asterarte itxoin bearko dezu. Eta eskatu ezaidazu mezetara joan baiño lenago, badakizu ni nolakoa naizen-da...

Apopiloarekin bukatzeko, umore onean zegoan beste egun batean ara zer esan zion, ordurako edadetu-xamarra zan etxekoandreari:

—Biok ezkonduko al gera? Ea ala zintzotzen naizen pixka bat... Ez degu izango, noski, seaska egin bearrik eta aurrak zaintzen lanik ere ez...!

\* \* \*

Badira geiago ere, ez dakit gertatuak ala asmatutako zelebrekeriak diran, baiña Goierri aldeko kontuak beintzat. Gure anai zarrenak kontatzen zizkigun guri parra egin arazteagatik, arto-zuritzen ari giñala, geienetan. Illuntzean, lendabizi, amak errosarioa errezatu, eta gero, berak aparia jarri bitartean, gu arto-zuritzen aritzen giñan.

Esan bezela, gure anaiak asko zekizkin, naiz-ta nola, noiz ta nun gertatuak ziran esan ez. Berak ere etzuan jakingo noski-ta. Beste norbaiti entzunak, seguru asko.

Dana dala, nik onenak dauzkat gogoan: baserri batean aurra jaiotzea tokatu, eta senarra perira joana izan. Illunabarrean, etxera etortzerako, aurra jaioa, eta gizona lasai. Urrengo egunean auzoko batekin topo egin, eta onek:

— Familian aumentua ba omen dezute, Joxe Iñaxio!

— Bai, motell, ni perira joana nindukan eta etortzerako, jaioa aurra...

— Zer dezute, semea ala alaba?

Eta onela erantzun omen zion Joxe Iñaxiok:

— Etzekiat motell, ez nauk fijatu... Gero ere ezagungo dik, bai, zer dan!

Ikusten danez, aitari berdin zitzaion bat izan edo bestea izan.

Beste au ere anaiari entzuna da: baserri bateko senarra artajorran ari zala gertatua. Etxetik aparte-xamarrean omen zan, eta abixua emanagatik, arek segi artajorran. Bigarren aldiz abixatu zioten, bixkiak jaio zirala, eta joateko etxera. Orduan ala esan omen zion bere buruari:

— Joan egin bearko diat, bai, bestela ez dek geldituko umea egin da umea egin!

Abixuarekin joan zan emakumeari galdetu omen zion:

— Zenbat dira, ba, jaiokak? —eta bixkiak zirala esan zionean:

— Ori besterik ez bada, ala ere, an nunbait!

Gizonak etzeukan kezka aundirik semeak edo alabak ziran jakiteko, eta nola aziko ziran ere ez. Ura zan gizonaren patxara eta konformidadea!

\* \* \*

Kontu auek ez dakit zer diran, baiña gertatutako itxura badute. Etziran denak asmatutakoak izango; bestela etzizkiguten guri orrela kontatuko. Orain ikusten ari geran au bai dala egia: gure baserrietan ez dala azitzen ain familiugaririk; kanean berriz, ain gutxiago. Orrek ekarri lezake jende gutxitzea, geiegi gerala esa-

ten ari badira ere. Jaio baiño geiago iltzen bada, seguru bakanduko generala. Nik pentsatzen det, garai aietan bost aur azitzea errezago zala gaur bi baiño.

Aur jaiotzeak aldatu dira  
eta ez dakit noraño,  
gaur ez da ia iñor irixten  
lengo neurrietaraño.  
Gutxi ta aiek ondo azitzen  
jartzen da ainbat enpeño,  
len bost gutxigo kostatzen ziran  
gaur egunean bi baiño.

\* \* \*

Aur jaiotzak utzita, orain, ondorengo oiturak nola ziran esango det. Aurra jaio ta urrengo egunean bataiatzen zan, iñola al bazan beintzat. Aita puntakoa eta ama puntakoa jakiñaren gañean egoten ziran, oitura zan bezela, oso urrutikoak ezpaziran beintzat. Eta garai aietan familiarrak, geienetan, ingurukoak izaten ziran, ezkontzak ere ala egiten ziran-da.

Eguerdietan bataiatu eta aurraren aita joaten bazan, amaiketako pixka bat egingo zuten. Arratsaldean bataiatzen bazan, merienda lege bat egin eta nor bere etxera eta kito. Orduan esan oi zuten aita eta ama puntakoa gelditzen zirala aurraren kargu gurasoen paltan.

Geienetan, aita puntakoaren izena jartzen zioten mutilla bazan, eta ama puntakoarena alaba zanean.

Andik amabost egunera edo, ama ondo jartzean, auzoko beste emakume bat lagun artu-

ta, *elizan sartzea* esaten zitzaiona egitera joaten ziran, txintxo asko, orduko etxekoandreak.

Gaurko egunetan beste izen berriak jartzen dira euskaldun aurren artean. Baiña neri eta edadeko jende askori, nik uste, lengo izen aiek egokiagoak iruditzen zaizkigula. Ortan ere moda dago, nunbait, beste gauza askorekin bezela.

\* \* \*

Beste oitura bat ere bazan: aurra izanda gero, andik ogei egunera edo, familiko eta auzoko etxekoandreak juntatzen ziran aurra jaio berria zan etxe edo baserrian. Aurra ikusiaz, zortzi edo hamar emakume biltzen ziran jai arratsaldean. Oitura ari *martopillak* deitzen zioten. Gure gazte denboran fama aundia zuten, Goierri aldean beintzat. Emen, bee-alde ontan, berriz, *atsolorra* esaten zioten. Baiña emen etzan an bezin nabarmen zelebratzen.

Gure amari entzuten nionez, alakoxe egunetan disfrutatzen zuten etxekoandre gaxo aiek. Gañerakoan etzuten izaten radioa entzuten eta telebistari begira egoteko aukerarik. Egun aietako bat etortzeko zai egoten omen ziran.

Denak eramaten zuten zerbait erregalo: txokolate, galleta, ardo goxo, esponja, kafe eta nik dakit zenbat gauz. Bakoitza bere zestotxoarekin joaten zan juergarako gogoarekin. Gauza ta edari goxoak artu ondoren, denak berriketakoko sasoi ederra ere bai. Erdi txoratuta azkenerrako.



Bein atsolor aietako batean, etxeko nagusiak, emakumeak ala ikusi zituanean, pentsatu omen zuan seaskatik aurra oera eraman eta seaskan uztarria jartzea aurraren partez. Illunabarrean, etxerakoan, aurra despeditu egin bear, eta ala omen zioten seaskara begiratuz:

—Lo bete-betean dago. Aita igoal-igoala da aur au. Jaunak osasuna eman dezaiola azitzeko.

Eta gabonpasa eta agur esanez, bakoitza bere etxera alai eta pozik.

## Artzaiak eta ardiai illea moztea

**G**ARAGARRILLEAN edo Ekaiñean egin oi dira ille mozteak; batzuk lentxeago eta besteak geroxeago. Nik entzun nuan ardiak illea moztutzean, erdi larrugorrian gelditzen dirala berriro illea pixkat azi bitartean; kazkabar edo arri erasoren bat egitea tokatzen bada, ardiak jipoi aundia artzen dutela. Baiña ardiak sena izaten du. Alakorik badator, eta arboladiren bat badute inguruan, azkar joaten dira arbola azpira. An asko defenditzen dira.

Bein bakarrik ikusi nuan nik ardiai illea mozten. Ni artzaimutil ibilitako nagusiak eraman nindun. Abaltzisketa-ko plazan egin zuten, an bizi baizan, Azpiko-Etxe baserrian, plazan bertan.

Iru artzai ziran, gizon elduak irurak, lan artan ondo ikasiak. Guraize bereziak zituzten, aundiak eta zorrotzak. Eta aiek illea moztu alean, nik zakuetan sartu.

Ardiak ere ez dute ille berdiña izaten: batzuk bigunagoa eta besteak zakarragoa. Bigunena aparte uzten zuten, aria egiteko. Bigun artatik neri eman zidan mordo bat, etxera eramateko. Goizean asi eta bazkaltzerako bukatu zituzten lanak.

Bazkaltzeko denboran etxera sartu zituan ardiak, etxean toki aundia baizuan. Sotoan bapo bazkaldu genduan, eta nere nagusiak mendira joan bear ardiakin, beiak gobernatura. Gazta egiteko tresnak an zeuzkan eta ardiak jetzitakoan, gazta egiten zuan gauean.

Esan bezela, neri eman zidan ille mordo ederra eta au esan zidan:

—Eramantzak ori etxera eta, zuen aitak, ille orrekin ari ederra egingo dik. Arek bezin ari ederra egiten zalla dek.

Garai artan artzai danak jakingo zuten aria egiten; geienak beintzat bai, zar-abarrak batez ere. Baiña ari fiña eta berdiña egiten ez da ain erreza. Ari berdiña egin bear galtzerdi txukunak ateratzeko, ez une batzutan lodia eta bes-tetan mea, al zan berdiñena baizik.

Gure aitak bi ari klase egiten zituan: bat galtzerdiak egiteko eta bestea abarka-sokak egiteko. Ari beltzarekin egiten zituan abarka-sokak edo *goaitiak* —guk eta gure aurrekoak ala deitzen bai zioten—. Baiña ortarako ille beltza bear, eta ardi beltza, gutxi. Ni mutil ibilitako artzaiak bi besterik etzitian. Orduan ixtimazioa izaten zuten ardi beltzak.

Ez dakit nundik ekarriak, baiña gure aitak bazitian bi pala beren eskuleku ta guzti. Alan-

brea zuten alde batetik oso ugari jarria, eskobilla baten gisan. *Kardak* deitzen genien guk, eta aietan pasata, illea ondo banakatuta eta arro uzten zuan. *Artillea* oso zikiña da, berez, eta *galtzerdiak* egiteko garbia bear. Baiña *karda* aiekin pasata, asko garbitzen zan eta bigundu ere bai.

Aria nola egiten zan ere jarriko det, ortan ari naizen ezkerero. *Ukabilla* aiña lodiko egur mutur edo tronko bat izaten zan, bi aldetan lodia eta erdian oso mea. Eta kako-dun kirten edo ziri bat sartzen zitzaion erdi-erdian. *Txaratilla* zan aren izena. Ura jarri zintzilik, eta bueltak emaneg egiten da aria. Aldiko metro bat edo geixeago egin eta txaratillan bildu bete arte. Betetzean aria tira-tiran artu eta pelota bezela aria bildu biurritu ez zedin.

*Galtzerdia* egiteko ari ura geiegi biurritua egoten zan eta pixka bat lasaitu egin bear zan *galtzerdia* egiñez; lasaitu eta lasaitu gabeko mugan orratz bat sartuta jarri. *Araiño* iritxita-koan berriz ere lasaitu eta ala segi *galtzerdia* egin alean.

Emakumeak *galtzerdi* egiten azkarragoak dira edo ziran, baiña gizezkoak obeagoak eta txukunagoak egiten zituzten. Emakumeak lau *galtzeta* orratzekin egiten zuten eta gizonak bost orratz kakodunekin aritzen ziran.

Gaur ez da, noski, iñor arituko *galtzerdi* egiten. *Gizasemerik* ez, beintzat, eta emakumezkorik ere, naiko lan. Orain ez degu ortarako denborik. Danak presaka bizi gera.

\* \* \*

Gure etxean, aitak aria egin, eta galtzerdi egiten bost anaitatik iruk ikasi genduan. Bi arrebak ere bai, eta aita berak eta amak, zer esanik ez. Bederatzi laguneko familia giñan eta zazpik bagenekien galtzerdigintzan. Gurean etzan galtzerdi paltik izaten. Oñetako palta geiago izaten genduan. Bei larruarekin egindako abarkakin ibiltzen giñan. Botak ere bagenitun, baiña aiek jaietan mezetara joateko jaso bear.

Larruzko abarka aiek oiñetako eskasak ziran oso. Etzuten bustiarekin arrimorik, ezta anak legor ibiltzeko modurik. Legorrarekin, berriz, legortu eta anketan miñ eman. Gauean uretan eukita biguntzen ziran, baiña urrengo egunean jantzi eta egin bear berriz. Gero automobilien errueda edo kurpillakin asi ziran abarkak egiten. Askoz obeagoak ziran. Aiekin anak legor ibiltzen genituan eta arrimu geiago zuten. Denbora aiek joan ziran baiña ez dira aztutzen.

Nere nagusi izandako artzaia bastante aldiz etortzen zan gure etxera, eta aitak edo guk egindako galtzerdi, abarka edo saskiak ere ematen zizkion aitak. Berak gaztak ekartzen zizkigun, eta oso ondo konpontzen giñan alkarrekin. Ala obe.

Nik oso gustoko lana nuan galtzerdi egitea. Onera etorri eta gero ere, egin nituan pranko artile lodiarekin abarkakin ibiltzeko. Zenbat eta ari lodiagoa, orduan eta azkarrago egiten da.

Galtzerdi lodiak denbora luzean irauten zuten. Baiña kanpo-lanean edo mendian abarkakin zebillenari, goiak osorik eta anak pus-



Baserriko atarian artilezko galtzerdia egiten.

katzen zitzaizkion. Orduan oiñak berriak egin eta berriak bezela gelditzen ziran.

Neguko gau luzetan gustora aritzen nintzan galtzerdi egiten. Nere emazte difuntari ere egin nion pare bat, berak aria ekarrita. Kalera edo plazara Ernani-ko tranbian joaten ziran base-rritarrak, eta egun batean, bere lagunai, aitona egindako galtzerdiakin joan zala esan zionean, arrituta gelditu omen zan, sinistu eziñik. Denbora luzean iraun zioten eta oso gustokoak zituala esaten zidan. Orduan etzan irrati eta telebistarik, eta ala pasatzen, guk, denbora.

\* \* \*

Gure ama zanak eta arrebak koltxoi onak ere egiten zituzten artillearekin, eta koltxoi onak asko jazten zuan oia. Artean etzan jergoirik, gure etxean beintzat. *Lastaiaren* gañean egiten genduan lo. Lastaia zer zan? Zaku aundi bat artarako berezia. Zaku ura zurikiñez betetzen zan. Bi zulo aundi izaten zituan andik eskua sartuta arrotzeko. Egunero egiten bazan, obe.

Gai onekin bukatzeko, gau batean zer gertatu zitzaigun esango det orain. Guk, bi anai gaztenak egiten genduan lo oi batean. Oia etzan izango berria ta, gau batean puskatu eta an gelditu giñan lurrean. Baiña ez genduan iñor aztaldatau nai, eta lastaia eta koltxoa lurrean bota, eta an pasa genduan gaua.

Txirrita-ri ere orrelako zerbait gertatu omen zitzaion. Pixu aundia izan eta oiaren azpiko barrak puskatuta, lurrean gelditu. Aldamene-

ko oian zegoana esnatu omen zan arek atera zuan danbetakoarekin, eta:

— Zer pasatzen zaik, Joxe Manuel? Ez al ago ondo, ala?

Eta orduan Txirrita-k:

— Len baiño pixka bat berago egotea, baiña bestela ain gaizki ez niok.

Lengo oitura zarrak  
erabat gutxitu  
ta oraingo berriak  
asko ugaritu.  
Egia esanda ere  
ezin da sinistu,  
iñork jakin nai badu  
orra eskribitu,  
ordukoak bazuten  
naikoa meritu.



## Saskigintza baserrietan

**G**URE gazte denboran, nik uste dedanez, ia baserri guztietan saskirik egiten zan, nork beraren pasadizua egiteko aiña beintzat. Batzuk modu batekoak eta besteak bestekoak, bakoitzak al zuan modukoak, etxerako bear ziranak.

Saskiak modu askotara egiten dira. Guk ere ez genituan danak berdiñak egiten, batzuk zumitz zabalarekin eta beste batzuk estuarekin. Makil meari azaleko zumitza bakarrik ateratzen genion. Egur lodiari, berriz, zumitz zabalak, eta dana zumitz biurtu bear zan enborra. Onek lan aundiagoa izaten zuan. Dana zumitz egiteko enborrak bastante lodia bear zuan, eta ondo berotu bear enborra ortarako.

Saskigilleak, artan aritzen diranak, labe bereziak dituzte ortarako jarriak. Egurra ondo berotu ezkeru zumitza errez ateratzen da. Zenbat eta enbor lodiagoa orduan eta zumitz zabalagoa, jakiña, eta saskia egiteko ohea, azkarra-go egiten da-ta, eta fuerteagoa.

Baserrietan alako egur lodiak nola berotu, ortan izaten ziran lan txarrak. Gure etxean ogia egiteko labea bagendun, ta ogia ere egiten zan batzutan. Aitak ogia ateratzean zumitz-gaiak labean sartuta berotu egiten zituan, bastante zabalak batzuk.

Bein zumitzak atera ezkeru, an egoten ziran mordoska, ta askotan geiegi legortu, saskiak egiteko denborik etzalako. Baiña zumitza uretan jarrita, gau batean edo, bigundu bear izaten da saskia egiteko.

Zumitza zabalarekin saski aundiak egiten ziran jeneralean. *Lepasaskiak* esaten zitzaien aiei, arbia, paotsa, artoak etabar ekartzeko. Beste saski txikiagoak ere egiten ziran, *lursaskiak*. Beste batzuri *eskusaskiak* esaten zitzaien, gaztain, sagar, babarrun etabar biltzeko. Lau edo bost eratakoak, baiña aiek zumitz azalarekin egiten ziran, urritz makillari edo gaztain zepari ateratakoarekin.

Garai aietan urritz asko zan, eta gaztain zepa ere nunai, baiña naiz urritza, naiz gaztain zepak, lisua bear du, leguna, adarrik gabea, zumitza ondo ateratzeko.

Zumitza asko erabiltzen zan silla ipurdiak egiteko, naiz-ta oolezko aulkia izan sukaldetan geien orduan, eta orain ere bai baserri askotan. Gure etxean gaur ere ala daude.

Gure jaiotetxean ez, kasik danak zumitzezko ipurdidunak ziran, ariñagoak ziralako, ta ala segitzen zuten gure aita bizitu zan arte. Armazoirako al bazun beintzat, altza materiala erabiltzen zuan geien.



Saskia egiteko gaztain-zepari zumitza ateratzen.


Guk, gizasemeok, danok ikasi genduan saskiak egiten, baiña aitak bezin ondo iñork ez. Ni onera etorrita gero saski pranko egiña naiz, nolako edo alako. Saski txikiak egiten nituan geien. Denbora batean marrubi asko zan gure etxean, eta aiek biltzeko.

Zumitzgaiak ekonomika-labeen sartuta oso ondo berotzen dira, saski txikiak egiteko motzak. Saski txikiak errez egiten nituan; oraindik ere badira gure etxean, baiña orain, marrubiak palta. Oraindik ere aritzen naiz saski zaarrak konpontzen, gutxi edo geio, ez aaztutzearren. Gure etxean ez du iñork ikasi olako lanetan, naiago dute telebistari begira egon denbora dutenean.

Lan oitan aritzea atrasua dala esango dezute, baiña saskiari ipurdia puskatzen zaio geienean, eta ipurdi berria eginda ia berriak bezela serbitzen du. Baiña gazteak naiago du berria erosi, zaarrak konpontzen aritu baño. Geure denbora pixka ontan gauza asko aldatu dirala esan bearrik ez dago. Gaurko egunetan ez da len bezela gauzik aprobeztatzen, lengo zaarrak bazterrera bota edo erre, eta berriak erosten dira gauza geienak.

Nik uste arrazoia ere badutela, gauz batzurekin beintzat. Gaurko egunetan jende gutxi dago, eta bestela ere badute zeregiñik asko, baserrietan. Ez dago gaurko etxekoandreari esan besterik, lengoari bezela, aritzeko galtza, txamarra eta alkandorak konpontzen! Orduan zaarrekin konforme, eta berririk, igoal ezin.

Eta lerro aukeratuak buka ditzadan onako bertso kaskar onekin:



Marrubiak biltzeko Bartolo'k egindako saskitxoa. Baiña orain marrubirik ez.

Ordukoak bizi ta  
gaurkoak ere bai,  
batzuetan triste ta  
bestietan alai.  
Baiña alde ederra  
ikusten da nunai,  
orain erropak milla  
klasetakoak nai,  
modan jantzi nai dunak  
dendan dauzka salgai.

## Zurdille-soka

**S**EGURU asko, gaurko gazte gutxik jakin-go dute zurdea edo zurdillea zer dan, eta ori esatea komeniko da aurrena.

Zurdillea da ganadu eta abereen isatzeko eta lepo gaiñeko illea. Ta baserritarrak soka egiteko erabiltzen zuten garai batean. Orain apenas iñor aritzen da lan oietan. Nik ez det ikusten beintzat.

Ganadua eta aberea esan det, eta ori argituko det aurrena. Guretzat, beikia da ganadua; eta, zaldikia, aberea. Ondo edo gaizki, orrela bereizten ditugu.

Zurdillea askoz luzeagoa du, normalean, abereak edo zaldikiak, eta zenbat eta luzeagoa, orduan eta ohea soka egiteko. Baiña, guk beintzat, gutxi izaten genduan ortatik, eta ganaduarenakin naastuta aritzen giñan.

Gezurra dirudi, baiña nik entzun izan det Aralar mendian abereai zurdea moztu eta era-

maten zutenak bazirala. Ortik pentsa nolako ixtimazioa zuan garai artan.

Zurdilleakin egindako sokak zertarako? Gauz geiagotarako ere bai, noski, baiña guk batipat, ganaduen uztarriko burutakoa edo bularrekoa lotzeko, eta bide batez, apaintzeko erabiltzen genduan. Oso txukun eta dotore ematen du, izan ere, ardi-larruzko burutako zuriak kolore illuneko sokarekin lotuta. Alde ederra dago, adibidez, buruan, zaku zaarra jarri edo ardi-larrua jarri!

Burutakoa bearrezkoa da, baitere, beiak edo idiak uztarrian lotzeko, edeak eguzkiak jota ez legortzeko eta euriak busti ta ez gogortzeko.

Burutakoa aariarena edo ardiarena izan, alde aundia dago. Batetik, aundiagoa da aaria-rena, eta bestetik, illea ere sendoagoa, obeagoa du. Baiña, jakiña, aariak gutxiago izaten.

\* \* \*

Zurdille-soka, erosturakoa, kañamo, algo-  
doi, plastiko eta abarrekikoa baiña aulagoa da, ez du tiraka eta indarkarako alako agoanterik. Azkarrago eteten da, baiña busti-legorrerako ona da. Ez da gogortzen, bestea bezela, bustia-gatik.

Aulagoa dala esan det eta, badet eskarmen-tua eta motiboa ori esateko: bein Donosti-ko Egia auzoko aldapan zan Pedro eta Antonio-ren perratokira joan nintzan bei pareakin. Ta bei bat perratzen ari giñan bitartean, perratoki atarian, kanpoan argollari lotuta zegoan beste beiaren ondotik pasa zaldikarroa, eta arekin





Zurdille-soka egiteko txaratillarekin aria egiten.

ikaratuta, egin zuan tirazoarekin, soka eten eta an joan zan beia Tabakalera-n barrena igesi. Ura zirkoa armatu genduan! Nerbio utsa zan bei ura, ta etzala geldituko! Batzuk dibertitu ere egingo ziran. Ni, berriz, estu ta larri, atzetik segika. Ez nuan tratu ederra artu!

Nik nai orduko ez-baiña, alako batean nekatu zanean, ura ere gelditu nunbait, eta norbaitek arrapatu zuan. Laguntza ere izan nuan, beraz. Eta ala bukatu zan festa. Soka zurdillezkoa zan, ori gogoan daukat. Baiña bestelakoa izan balitz ere, bei arek puskatzea ez nintzan batere arrituko.

\* \* \*

Soka nola egiten genduan:

Nik Goierritik etortzerako ikasi nuan soka egiten, eta emen egiten nituan nere gisara. Auzokoei ere bai, bein edo bein zurdillearen truk. Baiña gure etxean soldaduzka garaian egon ziran mutil batzuk oso ondo zekiten soka egiten. Getariarrak ziran, langilleak eta jatorrak gainera. Aiekin asko ikasi nuan sokagintzan, eta beste lanetan ere bai.

Zurdillea ondo garbitu eta arro-arro egin bear da lenengo. Gero, artillearekin bezela, aria egin, baiña txaratilla pixuagoarekin. Aria biurri-biurri egin eta tirante edukitzeko.

Soka egiteko bear aiña ari badala ikusitakotan, bear zan tartea utziz, palanka edo laiak lurrean sartu, eta aietan batetik bestera, lau ari jarri tira-tiran. Eta alkarrekin biurri-biurri egiñaz, iru edo lau lokarri egin aurrena. Ori

egindakoan, iru edo lau lokarri oiekin operazio bera, alkarrekin biurrituz, soka egin arte.

Iru lokarrirekin, jakiña, soka meagoa ateratzen zan, eta ganadu janaritarako edo sortaketarako erabiltzen genduan batipat. Laukoa, ganaduaren burutakoa lotzeko. Luzeagoa izaten zan zortzi bat metrokoa bai, gutxienez. Iru edo lau buelta emateko modukoa.

Ez dira presaka egiteko lanak. Negu-partean egitekoa, bestetarako girorik etzanean. Gaur presaka bezela bizi da jendea. Ez dago, jakinda ere, lan oietarako denborik eta pazientzirik.

## Gaztagintza

**O**RAIN dala irurogeitamar urteko kontuak dira, Goierrian ikusiak edo egiten ziranak, jakiña, ikusteko egin-egin bear baita.

Gaztak nola egiten ziran? *Gatzagia*-rekin. Zer dan gatzagia? Esneko arkumearen maskubia da gatzagia. Arkumea larrutu eta garbitzeko irikitzean, barruan poltsa bat egoten da, esne galduarekin betea. Poltsa ura sekatzeko, lokarriarekin lotuta zintzilik jarri. Sekatzen danean kolore gorrixta artzen du gatzagiak.

Gazta egin bear zanean, azala kendu eta barrengo mamia xerra me-meak egin eta uretan jarri; ura bero-xamarra bada, azkarrago urtutzen da, beatzarekin zanpatuz pixkat laguntzen bazaio. Ez du gatzagi asko bear, kafe katillu erdi bat ur naikoa da gazta bat egiteko.

Nun saltzen ziran gatzagiak? Karnizeri edo arategietan. An egoten ziran salgai zintzilik. Sekatu ezkeru ondo, denbora askoan irauten

du maskubiak; eta aundi-xamarra bada gatzagia, gazta asko egiten da.

Kolorea ere aixa ematen genion gatzari, ara nola: garai artan tximini kanpanak ziran, eta barrengo aldean parrilla izaten zuten tximiniak. Gaztak pixkat sekatzan an jarrita, egun gutxitan kolore ederra artzen zuten. Artzaiak ere kearekin ematen zioten kolorea eta brillua gatzari, orduan beintzat. Nik ikusi izan nituan artzai-txabolak ez zuten tximinirik, eta sua egi-tean, txabola dena kez bete, eta ala artzen zuten kolore ederra gatzak.

Aralar mendian eta oietan gutxi ibilia naiz, baiña nik ikusi nituan txabolak ez zuten beste gauzik: barrenean apalak gatzak jartzeko, sutokia eta lotarako oia, txillarrarekin egiña azpia, eta gañean koltxoia eta tapakiak. Ura zan orduko artzaien etxebizitza, mendian zeuden bitartean.

Txabolaren inguruan, berriz, txerri-tokia izaten zuten, txerrikumeak gatzurarekin aitzeko. Azitzen zituzten guri askoak! Perian ezagun izaten omen zuten artzaien txerrikumeak.

Oraingo berri ez dakit nik, baiña pentsatzen det gaurko artzaien bizitzak ez dula orduko antzik izango, kanbiatuta egongo dala ederki, orain irurogeitamar urtetik onera.

Nik ezagutu nituan artzaiak Abaltzisketa, Zaldibi eta Amezketa-koak ziran. Gaintza-koa bakarra ezagutu nuan. Ni andik ertetzera saldu zituan ardiak. Baiña entzun det orain badirala artzai gazteak, eta ez nolanaikoak.

Lareun arditik gora bai omen dituzte, eta ez da txorakeria. Suerte ona opa diet danei.

\* \* \*

Len gazta nola egiten genduan esaten asi naiz, eta beste kontu batzuk bururatu, eta jarri egin ditut aaztutzeko beldurragatik. Orain esango det guk gazta nola egiten genduan eta nik ikusitako beste erak. Askok jakingo dute, baiña izango dira ezjakiñak ere, eta nik, jarriko ditut auek jakin dezaten.

Naiz beiarena edo ardiarena izan esnea, ganaduari kendu eta bereala izaten da une ona gatzagia edo lebadura bota eta naasteko. Esnearen kantidadearen neurrian, ondo naastuta, *mamia* egiten da. Naiz ardiarena edo beiarena izan esnea, igoal mamitzen da. Begiratu batean, igoalak ematen dute, baiña alde aundia dago jatekoan. Ardi esnearekin egindakoak askoz gusto ohea du bei esnearekin egindakoak baiño. Alimentua ere, beiarenak alako doblea baduela esango nuke, ardi esneak. Eta ori bakarrik ez, pixu igoaleko gazta egiteko, bei esnetik doble edo geiago bear du.

Gatzagia botata esnea mamitu ondoren, *mamia* dana berriz ondo naastu egin bear da, batidora berezi batekin. Kasik esne biurtuta bezela gelditzen da; eta piska baten utzita, bere gisa asten da *matoi* egiten. Gero, eskuakin lagundu egin bear zaio poliki-poliki *matoiari* bera jeixten. Gatzura goian gelditzen da, eta orduan asi gazta egiten.

Bi postura edo eratan ikusi izan det, nik neronek, gazta egiten. Ni morroi egon nintzan etxeko nagusiak, gatzurik etzion kentzen baterre gazta egin arte. Bere gatzura bertan zuala matoia labanarekin ebaki eta eskuakin atera matoia. Arek esaten zuan, matoia oztu eta elkortu egiten zala gatzura kenduta.

Guk berriz, beste era batera egiten genduan: gatzura dena kenduta asten giñan gazta egiten. Zein ote da postura edo era oietan onena? Nik ez dakit, baiña artzaiak jakingo dute gauz orren berri ondo asko, dudarik gabe.

Gazta egitea ez da presaka egiteko lana; pazientziarekin egin bear, eta bere denbora eskatzen du gazta ona aterako bada. Eskuakin ondo estutuz, gatzura kendu eta ontzian bueltak emanez, ondo txukatu. Gaztari etzaio utzi bear gatzurik baterre.

Nik ezagutu nituan gazta egiteko moldeak zumitzarekin egiñak ere; nere nagusiak ala erabiltzen zituan beintzat. Guk ez, ojalatazkoarekin egiten genituan gaztak. Azpian txulo asko zuten gatzura ateratzeko. Badira, oraindik, gure etxean, ez degu aien bearrik izango baña. Ez, neregatik libre dira, moldeak eta gañerakoak, baiña zenbat diran ez badakit ere, oraindik ez dira ainbeste urte gazta egiteari utzi niola.

Orain beste gauz bat gogoratu zait. Gure gazte denboran, gatzari arrak egiten zitzaizkion, bastante alditan; eta guk, gustora jaten genduan ala ere. Etzan alperrik galtzen. Jateko oso pikantea, bixi-bixia izaten zan.

Gustora jakingo nuke zergatik egiten zaizkion arrak gaztari. Nik ez dakit, baiña pentsatzen det gatzura gelditzen zitzaiolako ote dan. Artzaiak jakingo dute orrenbeste, noski.

\* \* \*

Gazta eta artzaien kontuakin bukatzeko, esan nai nuke, orduko artzaien bizimodua tris-tea zala. Geienez ere, igandetan jetxiko zan, al zuana, errira meza entzutera, eta gero, amai-ketakoa egiñez, lagun artean egotera.

Zaldibi-n orrelako zerbait izango zan gertatua. Artzai koadrilla juntatzen zan nunbait, eta broman edo benetan, apustua bezela egin omen zuan koadrilla orrek.

Solteroak izango ziran itxura danez, baiña ezkontzeko desiatzen zeudenak. Bakarrik aspertuak egongo ziran, eta laguna nai aiek ere. Ala diote beintzat Patxi Erauskin-en bertsoak. Nik Patxi ez nuan ikusi beiñere bertso kantari, baiña bai berak jarritako bertso-pape-rak saltzen. Eta gure erriko pestetan, Gaintzan, erosi ere izan nizkion eta baita ikasi ere, gaurko gazteak baiño geiago.

Denak ezpada ere, oraindik badauzkat batzuk gogoan, artzai soltero edo mutilzarrak gai artuta jarritakoak, eta gogoratzen zaizkidanak jarriko ditut orain, artzai eta gazta kontuak bukatzeko.



Amar artzai-mutillak  
egin degu junta;  
aurten ezkontze ez danak  
andrea artzen ez dunak  
milla pezta multa.  
Galduta gertatzean  
itza damututa,  
dirua dagolako,  
geuk jarri degulako  
depositatuta.

Ogei eta amarnaz  
goitik gera urtez,  
mutilzar aspertuta,  
bizi nai uztartuta,  
asmo onak ustez.  
Gabiltzalako geuren  
buruaren kaltez;  
soldatak pagatutzen,  
morroiak mantendutzen  
emaztien partez.

Udaran bizimodu  
gutziz ona dakau,  
nola gabiltzan askok  
ikusitzen gaituzte,  
ezin bada, ukau.  
Aize sana artu,  
gaztak egin goiz-gau,  
ardi esnari zurrut,  
gatzureari purrust,  
matoiari mokau.

Jeiki ta ardiak jetzi  
larrera bialdu,  
apaz esnearekin,  
txistu-joz gaztak egin  
ondoren gosaldu.  
Zear etzanean lo  
pasa zenbait ordu,  
guk bizimodu txarra  
udaran daukagula,  
nork esan bear du?

Artaldeak geureak  
diru apur bat bai,  
jokurikan ez degu,  
erretiro zintzoa,  
nola aste ta jai.  
Gañera, berriz, alai  
gabilitzanak nunai;  
gero zartzarorako,  
geure anparorako,  
andretxo bana nai.

## Guriña edo mantekilla

**B**EI umatu berriak ziralako edo, esne bolara zanean batez ere, gazta egiten aritzen giñan etxerako. Ondo etortzen zan jaki ordez jateko. Gaztarik ez genduan beiñere saltzen, baiña sosak ere nai, eta naiko lan zalla garai aietan.

Bederatzi laguneko familia giñan, eta bazan zeñek gastatua, baiña diru asko gabe ibili bear, al zan moduan, arrokeriak utzita, umill eta txintxo.

Ala genbiltzala, Alzaga-n jarri zuan mantekilla egiteko fabrika gizon batek. *Azeria* deitzen zioten ezizenez. Nik ez nuan ikasi ere nola zuan bere izena; entzungo nuan, baiña ez daukat gogoan. Alzaga-n izango dira oraindik aren berri nik baiño obeto dakitenak.

Ala asi giñan Alzaga-ko fabrika artara esnea eramaten, eta beste geiago ere bai. Gaintza-tik gure jaiotetxea izango zan urrutikoena. Ordubete ia bear zuan gure etxetik

Gaintza errira, eta andik Altzaga-ra beste ainueste, astoarekin beintzat. Pertsonak ibiltzeko baziran atajuak edo bidelasterrak, baiña astoarekin gurdi-bidez ibili bear. Goizean goiz irten eta eguerdirako ezin buelta egin.

Udara batean ala ibili giñan, eta txintxo pagatu ere egiten zigun eta konforme. Baiña udazkenean an asi zan gure *Azeria* pagatu eziñik. Gauzak gaizki irten zitzaizkiola, etzuala dirurik,... Aiek saltsak jarri zituanak baserritarren artean!

Uste det, azken aldera eramandako esneak kobratu gabe gelditu zirala baserritarrak. Kiebra jo zuan gure *Azeria*-k eta orra gure ibille-  
ren ordaiña!

Litro esnea lau txakur aundi pagatzen zigula uste det. Etzan diru asko, baiña, orduan diru gutxik asko balio, eta batere gabe gelditu bearra, ura bai zala tristea benetan.

\* \* \*

Sos batzuk aterako baziran saiatu egin bear nola edo ala, eta orduan baserri batzutan mantekilla etxean egiten asi ziran, astean bein perira eramateko. Guri ere beste batek erakutsi zigun nola egin, eta ikasi genduan; baita egin ere.

Esnea beiak jeztean, plateretan jartzen genduan goizean eta gauean. Gauean, plateretan dagon esnari gaiña egiten zaio. Gaiña, kutxareekin kontuz-kontuz kenduta, beste ontzi aundiago batera bota, al bazan lurreko ontzira.

Aste guztian mordoia egiten zan, eta astear-tean mantekilla egin, asteazkenean perira eramateko. Arekin txanpon batzuk artzen zituan gure amak eta zerbaiten bearra ere bai, gajoak.

Mantekilla nola egiten genduan jarriko det orain: barrika gisako ontzi bat izaten zan, biribilla eta egurrezkoa. Lendabizi, esne gaiña dena ontzi artara bota. Gero, ontziaren barruko neurri juxtu-juxtuko eta txulo askoko pala moduko bat bere kertenarekin gora eta bera ibillita, esne ura mantekilla biurtzen zan. Denbora asko bear izaten genduan, baiña arian-arian, mantekilla bean gelditzen zan. Eta, egia esan, oso ona ateratzen zitzaigun guri mantekilla.

Bein mantekilla egindakoa, ur freskoarekin garbitzen genduan. Gaua pasa eta urrengo egunean, komeni bezela, trozoka jarri eta, ara, tratu polita amarentzat!

Esnea, jakiña, aulagoa gelditzen zan Famili-rako, baiña dirua ere bear, eta etzegoan beste erremediorik.

## Laborea eta gañontzekoak neurtzeko neurriak

**L**ABOREA, garia, artoa, babarruna etabar neurtzeko etzan pixurik orduan. Bestela moldatzen ziran baserritarrak. Kaja batzuk ziran neurri baserrietan: lakaria bat eta gaitzerua bestea. Aiekin neurtzen zan laborea naiz errotara eramateko, naiz perira eramateko. Lakariak luzaroan iraun zuan, ia esaterako orain arte. Gaur ez da entzuten aien arrastorik.

Kaja edo neurri aiek beteta, regla batekin pasa bear gañetik berdin-berdin jarri arte. Lakariak iru kilo zituela esaten zuten, gutxi gora-bera. Gaitzeruak lau lakari, eta lau gaitzerurekin, *anega* esan oi zana. Orrela bazan, berrogeitazortzi kilo izango zan anega.

Gu eta besteak ere, ala moldatzen giñan. Guk, garia, aldiko gaitzerua eramaten genduan

errotara; eta errotariak ematen zizkigun lau ogi, kilokoak izango ziranak eta beste bat kilo erdikoa, txikiagoa, baiña ogi oso ona.

Astean bein joaten giñan errotara, gutxi gora-bera, eta zortzi egunekoa izan arren ogia, guk gustora jaten genduan; izatea ditxa.

Neguan, taloarekin moldatzen giñan geienez; garia etzan izaten, ogia urte erdian jateko ere-ta. Garia kontu aundiarekin ibiltzen zan; erriko pestetan, Eguberri jaietan eta orrelako egunetan jaten zan ogia.

Talua ez, talua etzan paltatzen urte guztian. Artoa errotara eramateko anega kontuarekin ibiltzen giñan eta errotariak jakingo zuan zer egiten zuan. Arek bai, pixua ona edukiko zuan, bere alderako noski. Etzan ezer pagatu bearrik izaten, pixuaren konformidadean kentzen zion laka esaten zitzaiona. Zakutik egiten zuan berak nai zuana.

Laka konturik ez da orain entzuten, baiña lengo kontuekin ari naizen ezkerero, Txirrita-k Pello Errota-ri kantatutako bertsoa eta Pello-k emandako erantzuna jarriko ditut.

Txirrita-k:

Bost alper mantentzeizkik  
errotako trankak,  
doblatuan kenduaz  
zakuari lakak.  
Jazten ditukanian  
deabruen prakak,  
inpernuko atetan  
ai zer mutur jokak,  
Pello, ixtillu gorrik  
ikusteko dauzkak

Pello Errotaren erantzuna:

Laka kontua nai dit  
iri adierazi:  
lengo lege zarrían,  
anegako zortzi.  
Gañerakua, berriz,  
jabeari utzi;  
Pellok ez dik zakuan  
pixurikan jetxi.  
Zerua nai duenak  
lapurreta gutxi.

Errota lanean ari zan garaian, iriña egiten “trak” eta “trank” soñua ateratzen zuan. Soiñu orrekin batera, laborea zana zala, kajatik erortzen zan iriña egiteko arri tartera. Bi arri ziran bueltaka eta aien tartean pasata iriña eginda gelditzen zan. Orregatik, nik ala pentsatzen det, soñu ura gogoratuta esango zuala Txirrita-k: “Bost alper mantentzeizkik errotako trankak”.

\* \* \*

Neurri kontuakin jarraituz, ni Goierrian nintzan garaian, sagarra ere neurtu egiten zala esango det. Egurrezko kaja aundi bat izaten zan; ura bete lendabizi sagarrez, eta gero zakura ustu. Kajakada bakoitzarekin zakua betetzen zan, eta sei zakurekin, karga sagarra.

Emen, gu bizi geran tokian eta inguruan, beste modu batera moldatzen giñan. Emen zakua izaten zan neurri, baiña Goierri-ko neurrikoak baiño zaku aundixeagoak, nere uste-tan.



Baziran neurri geiago ere ibiltzen ziranak, aietako bat *arrabete* esaten zitzaiona: arrabete egin oi zan, atzaparra zabalduta, beatz lodia-  
ren puntatik beatz txikiaren puntara; ori da arrabetea.

Guk geien erabiltzen genduan bizitarako ganadua sal-erosketetan. *Kordela* edo *listaia* esaten zitzaiona erabiltzen zan, eta ala da gañera. Listai orrek arrabetetik arrabetera izaten ditu seiñaleak, eta berarekin gerria neur-tzen zitzaion ganaduari; zenbat arra, ainbeste erralde, eta ez pentsa oker aundirik ibiltzen zuanik.

Nik esan bear banu, tratanteak, ortan ere, zenbaitek tranparen bat egiten zuan, bere alderako noski: zenbat eta geiago tiratu korde-la, orduan eta neurri gutxiago. Neronek ikusi izan nuan, tira bearrarekin, kordela etetzen ere, baiña izango zuan besteren bat berarekin. Seguru asko esango zuan: “aspaldikoa zan da...”

Beste neurri bat bazan, eta oraindik ere segitzen duala esango nuke: *kana*. Nik ez dakit ze neurri izango dun kanak; nik dakidana da guk egiten genduana: besoa jarri luzatuta, zuzen-zuzen, eta beatz muturretik petxu erdi-raiño. Ura zan kana guretzat. Zortzi arra omen ditu kanak.

Orain ez da entzuten kana konturik ia, aizkolarien artean ezpada; baiña len asko itzegiten zan, eta ez aizkolarien artean bakarrik. Dendetan ere kana erabiltzen zan: orrenbeste kana tela bear zirala trajea egiteko pertsona normal batentzat, etabar.

Orain gogoratu zait; *ontza* eta *oiña* neurri izenak ere entzuten dira oraindik, nik uste det, euskal-jokoetan. Adibidez: ainbeste ontzako oinbiko enborrak, aizkolarien artean; token berriz, berrogei edo ez dakit zenbat oiñeko tira-bidea, eta abar. Ontzak beatzaren neurria du, ala kalkulatzen da beintzat. Eta oiñak, berak dion bezela, pertsona normal baten oiñarena.

Gure denboran, eta gero ere bai, orain apenas, aur-jolasetan, arrastoak eta nundik norakoak neurtzeko, oiñak, arrabete eta beatzak ziran erabiltzen genituan neurriak.

\* \* \*

Eta neurri kontuakin buka dezadan. Denbora bateko baserri erosketak egiterakoan, edo terreno sailen bat erosi edo saltzerakoan, etzan iñor ikusten terrenoak neurtzen. Bestela egiten zituzten tratuak, *golde* kontuan geienak. Ainbeste golde zituala labrantiak, eta belardi, baso, zakartoki eta abarrek beste ainbeste, eta orrela. Nik beti entzun izan det goldearen neurria lau irurekin egiten dala, au da, 3.333 metro koadratu. Ortik aterako zuten kontua zenbat metro ziran gutxi gora-bera eta zenbat golde zituan baserriak.

Orain jakin ditut kontu geiago goldeari buruz. Ez omen da igoala, adibidez, goldea Castillan eta Euskalerrian. An, 64 area eta emen, segun zein tokitan, 23-tik 27-ra bitarte. Beraz, ez daude gauzak ain garbi.

Kontu auek aspaldikoak dira, gure gazte denborakoak. Gauzak kanbiatu dira lendik

onera. Len maiztarrak giñan baserritar geienak. Baiña urte auetan maiztarrak berak baserri asko erosi dutela esaten dute. Guk ere erosi genduan, orain bost urte, baiña emen etzan golde konturik aiatu. Bestela egin ziran tratuak, ederki neurtuta zenbat metro zituan gu bizi geran baserriak; ainbeste ektarea zituala eta, guk aien esanera konformatu egin bear erosiko bagenduan. Naiz sasiak eta larrak artuta egon, metrajeak balio aientzat.

## Morrontza eta izenen ezberdintasuna

**N**I Goierritik Aiete-ko Aizetsu-ra morroi etorri nintzanean, baserriko gauza askoren izenak oso ezberdiñak iruditu zitzaizkidan, eta nagusia ere arritu egiten zan. Emezortzi urte izango nituan nik orduan eta irurogeitamaika badira ori zala.

Baiña nolaz etorri nintzan jarriko det, aurrena, andik oneraiño. Gure amaren anai bat apaiz edo praille egiteko ibillia izan bear zuan, baiña, beste askoren gisan, arek ere karrera utzi. Nik drogeri batean dependiente ezagutu nuan Donosti-n, eta aren bitartez etorri nintzan Aiete-ra. Aizetsu baserriko etxeakoandreak eta nere osabak ezagutzen zuten alkar ondo lendik eta berak lagundu zidan Donosti-ra etortzen eta baserriraiño joaten igande arratsalde batean.

Soldata zenbat eta asi ziranean, osabak esan zion amabost duro bear nituala, eta na-

gusiak, berriz, konforme zala pagatzeko, ondo portatzen banintzan, baiña illabeteko prueba-rekin.

Prueba, illabetekoa, ea nola konpontzen nintzan ikusteko, ondo joan zan; etzan gure artean ezereen eskusik izan. Ederki konpontzen giñan alkarren artean.

Izketan asten giñanean, beti neri zer aterako aritzen zan nagusi gaztea. Nik Goierri-ko kontuak bakarrik nekizkian, Goierri-ko berri besterik ez nekian, ez nintzan beste iñora joanda. Izkera ere oso ezberdiña zan neretzat, eta gauz askoren izenak ere bai.

Ikulluko kontuak lendabizi:

*Beiak jetzi* esaten da Goierrian. Emen berriz, *beiak bildu*. Ori entzunda, ni, arrituta bezela gelditu nintzan aurrenetik. Bi eratara esaten da, baiña, bi itz oiek ez daude ondo esanak; nere ustez, *beiari esnea kendu* bear luke ondo esateko. Oraingo makina oiek ez al dute ala egiten? Gaur ez du ia iñork eskuz beirik biltzen.

Beiak jeizteko *kaikua* izeneko ontzi berezia zan, egurrezkoa, bere eskulekuakin. Beiak biltzeko bakarrik erabiltzen zan ontzi ura. Esnea erosteko, berriz, *pertza* esaten zitzaion ontzia zan.

Gero bazan beste ontzi bat ura garbia edateko ta sukaldeko lanak egiteko. Ari *perrada* deitzen genion; egurrezkoa eta berezia zan: beko aldea zabala ta goia estuagoa; iru uztai zituan zabal-zabalak brillua zutenak, eta denak igoaltsuak ikusten genituan baserrie-

tan. Etzuten eskulekurik eta buruan erabili bear izaten ziran.

Beiak jateko tokiari *ganbela* deitzen zaio Goierrian; emen berriz, *majera*. Itz ori ez nuan entzun onera etorri artean.

Ni Aizetsu-n morroi jarri eta laister, txekor bat jaio zan. Xexena zan, eta bikaiña gañera; eta nik ala esan nion nagusiari:

— Auxe txekor *idixko* bikaiña! Azitzeko ere ez litzateke aldrebesa!

Eta kargu bezela artu zidan, eta, broman noski, baiña ala erantzun zidan:

— Goierrian txekorrak *idixkoak* jaiotzen al dira, ala? Emen ez da txekor *idixkorik* jaiotzen...

Nik ixilik egon bear, nagusiak zuan arrazoi-ta. Ala ere nik esaten nion:

— Guk beti, txekorra jaiotzean, *urru* edo *idixkoa* esaten diogu, ba, Goierrian.

Eta ala erantzun zidan:

— Ez emen eta ez Goierrian, ez da txekor *idixkorik* jaiotzen, eta ez da jaioko ere. Jaiotze-an denak *urru* edo *xexenak* dira; *idixkoa* izateko zikiatu egin bear da.

Ez nion geiago kontrarik egin. Izan ere, berdin gertatzen da ardi ganaduaekin, arkume *urru* edo *aariak* jaio eta zikiroa egin nai bada, zikiatu egin bear txikitan.

\* \* \*

Esan bezela, neri beti zer aterako aritzen zan nagusia eta nik esaten nion:

—Guk Goierrian gorritu edo labratzen genduan lur saillari *arto-soroa*, *gari-soroa*, *arbi-soroa* eta abar esaten diogu; emen berriz, belardiari *belar-soroa* eta artoa egiten dan lurrari, *arto-zelaia*. Ganaduen azpigarriari *iñorkiña* guk, eta emen *azpitako zakarra*. Goierrian, *garoa* azpigarri erabiltzen danari, eta emen berriz, *iñistorra*. Onera etorri arte nik ez nekien zer zan ere *iñistorra*.

Bein Irun edo Ondarribi aldera ezkerro berriz, garoari *iratzea* deitzen diote. Orra euskerak dituan ezberdintasunak, gauza berak zenbat izen...

Eta berak esaten zidan babarrunarengatik:

—Zuek *indabea* esaten diozute eta ortan izango dezute arrazoia. Emen orain dabilkigun babarrun au seguraski India-tik etorria edo ekarria izango da, noizpait, onera, eta orregatik deituko zaio Goierrian *indabea*. Emen, bein Tolosatik bera ezkerro, *babarruna* deitzen diogu eta entzun izan det lenago, emengo potajea baba-txikia izaten zala eta gero sortu zala babarruna, —babaren urrena—, babaren urrengo potajea, alegia, eta orregatik deitzen zitzaiola babarruna.

Gure aurreko aitonak, eta gure gurasoak ere, ikazkin eta mendi-gizonak ziran asko. Gure aita zana, adibidez, ikazkiña izana zan, eta mendi-lanetan asko ibilia gaztetan. Aien potajea beti baba-txikia izaten omen zan; babarrunak baiño indar geiago zuala esaten zuten.

\* \* \*

Bi nagusi nituan nik Aizetsu-n morroi egon nintzanean: aita eta suia, baiña aita etzan metitzen nerekin askorik.

Txekorrik etzuten azitzen etxean; txikitan edo esneko txekorrak saltzen zituzten. Esnea bai, asko biltzen genduan, eta barazki eta lorea ere bai. Nagusia berez jardineroa zalarik, loretan asko saiutzen zan.

Goizero, jai eta aste, beiak lotu, gurdia kargatu eta San Martin plazara jeisten zan nagusi zaarra.

Pentsu asko jaten zuten, eta bei ederrak egoten ziran. Aiete-ko gañerako baserrietan ere bai, zerbezeriko garagarra gastatzen zuten geienak-eta.

Goizean beti garaitxo batean jeikitzen giñan, seirak aldean, eta nagusiak pentsu emate lanak egin bitartean, nik, azpiak txukundu. Gero, bion artean, beiak bildu, eta apustuan bezela ibiltzen giñan zeñek azkarrago bildu. Biok ere ez genduan alde aundirik ateratzen, baiña aitortzen zuan bera baiño azkarragoa nintzala beiak biltzen.

Beti alkarrekin broman bezela ibiltzen giñan, eta ala esaten zuan:

—Beiak biltzen obeditzen dizut, baiña segan jokatuko nizuke nik zuri, bentaja emanda ere.

Ni zirikatzen aritzea gustatzen zitzaion nagusi gazteari, jardineruari, baiña gizon langillea eta zintzoa zan. Ura etzan, jaietan ere, iñora joaten; goizean Antigu-ra, zortzitako mezetara. Biok joaten giñan geienetan, eta gañerakoan, iñora ez, beti etxean biok. Nagu-



sia eskola ondo ikasia eta burutsua zan, eta ni, berriz, eskola gutxikoa eta ezjakiña aren ondoan, baiña ondo konpontzen giñan.

Egun batean, lanean ari giñala, zer atera araziko orduan ere, ala esan zidan:

—Entzun al dezu beiñere Euskalerrian astea, orain zazpi eguneko aste au, bi asterekin egiten zala? Bera dago esaten: lenengo eguna, astelena; bigarrena, iru egunen tartekoa, asteartea; eta gero, asteazkena. Irugarrenarekin, bukatu astea!”.

Orrelako zenbat kontu zaar berritzen zizkidan neri...! Alaxe gustatzen zitzaion ari, eta ni ere, pozik entzuten.

Batzuk bakarrik jarri ditut, baiña naikoak izango dira. Ea berriz zeruan biltzen geran alkarrekin berriketan aritzeko. Ala gerta dedilla. Amen.

## Illargiaren inguruko esamesak

**N**IK entzun izan dedana, bat beintzat, esatera au da:

“Urriko ilberrian, elurra Aizkorri-an”.

Beste au ere bai:

“Urriko ilberrian elurra noraiño, beste sei ilberritan araiño”.

Eta askotan konturatu izan naiz, eta ez dula oker aundirik ibiltzen esango nuke.

Gu Goierrian giñan garaian etzitzaien kasu askorik egiten illargi kontuari laborea ereitera-koan eta olako lanetan. Egur kontuan bai, materiala botatzerakoan kontuz ibilli oi zan; egurrak diferentzi aundia baitu, ze egur klase dan, batetik bestera, ilberan ebaki edo ilberrian ebaki.

Adibidez, urritz-makillak, babarrun-arbeta-ko-ta, ilberrian ebaki bear dira. Alde aundia

du, busti-legorreetan; ilberan ebakitakoak baiño askoz geiago irauten du.

Len baserritarrak akullu billa joaten ziran Urdaburu-ra edo ez dakit noraiño, eta ekarri ere bai akullu-gai ederrik. Baiña urriko ilberrian joango ziran beti. Ikusi izan genituan Ernani-n eta Tolosa-n, peri egunetan saltzen ere.

Gaurko egunean baserrietan akullu gutxi izango da, eta nik uste det ala obe dala gañera. Idi dema asko jokutzen da eta an erabiliko dituzte akulluak. Gu geroni ere ibilliak gera ortatik naikoa ta geiegi ere, tamalez, irurogei urte ta geiagoan. Ganaduarekin ibili bear duanak akullua bearrezkoa du, baiña nola ibiltzen dan, or dago koska...

Beste arbola bat bada, altza, au ere ilberrian bota bear dana, baiña maiatzeko ilberrian. Askok irauten du ala-ta. Orduan oso zimela du materiala. Bestela oso material txarra ateratzen zaio altza arbolari. Oso ustelkorra da altza, busti-legorreetan ez du agoantzaten, baiña material ariña nola dan, apareju edo tresnak egiteko oso ondo etortzen da.

Bestalde, gaztain zepa edo arbola ilberan ebaki bear da ondo iraungo badu busti-legorreetan.

Askok esango du txorakeriak dirala esan auek, baiña ez dira txorakeriak. Guk prueba egiñak eta ondo ikasiak aurreko zarrengandik. Nik entzun izan diet arbola guztiak dutela beren garaia ebakitzeko. Adibidez, ostoa borbilla duten arbolak ilberrian moztu bear dira,

ta osto luzea dutenak, ilberan. Alegia, batzuk esateko, altzak eta urritzak osto borobilla dute eta gaztaiñak mutur zorrotza. Jakin egin bear arbola bakoitzaren garaia ebakitzeko!

Emen, be-alde ontan batez ere, barazkiekin lana egiten degunok, illargiarekin zer egin bear degun ondo pentsatuta ibiltzen gerala uste det nik. Barazkiak ereiterakoan, edozein azi klase, ilberaren zai egoten gera. Ilberrian ereiten dan aziak azitzeko arrixkua du bear baiño lenago. Burutzeko garaian, burua egiteko partez, zuztar utsa gelditzen da; batez ere, tipula, porru, azenario etabar. Guk beintzat, kontu aundia ibiltzen degu, aziak ereiterakoan illargiarekin.

Nik entzun nion baserritar bati, orain dala urte asko, ilberriko ostirala ilbera izaten omen zala, baiña nik ez diot federik gauz orri. Guk illargiaren martxari dan bezela segitzen diogu, deskuidatzen ezpagera beintzat, aziak ilberan ereiten.

\* \* \*

Orain dala urte batzuk sekulako kontuak zabaldu ziran mundu guztian: izan zirala illargian eta ekarri zutela bere puska edo zerbait, eta ez dakit zer eta badakit zer.

Egun batez jubilatuen etxean bazkaltzen ari giñala, gizon batekin izketatu giñan illargi kontu oietaz eta ala esan zidan:

— Zuk sinisten al dezu kontu oiek egiak dirala? Nik ez det sinisten. Pruebak egiten ibiliko dira; baiña joaten badira ere, arekin ez dute ezeren probetxurik izango sekula.

Nik ez nion kontrako gauzik esan. Bere alde nintzan ni ere nere iritziz. Nik esan niona au izan zan:

— Nolaz ari dira, orduan, orrenbeste milla milloi alperrik gastatzen?

— Bai, orixe, alperrik arituko dira orain eta gero ere. Illargiak len bezela segituko du munduaren azkeneraiño.

Gizon au asko ibillia da munduan, bai Ameriketean, Txile-n, Puerto Riko-n eta ez dakit zenbat tokitan. Ez da gu bezela ezjakiña, asko ikusia baizik sasoi zuan arte. Orain, besteak bezela, zartzaroak menderatuta, erretiratua dago bera ere. Eta jarraitu zuan esanez:

— Neri pena ematen didate orrelako kontuak, alperrik gastatzen milloiak eta milloiak txorakeri oietan; eta emen esaten dutenez, milloika lagun goseak iltzen. Obe litzake illargiari pakean utzita mundu ontako egin bearretan saiatuko balira... Emen bertan ere diru asko gastatzen da, bai jazten eta bai jan-edanean.

Gero kontu geiago ere esan zizkigun, baiña ez daukat denak emen jartzerik, asko esan zizkigun-da. Ala ere, au gogoan artu nion:

— Konturatzen al zerate, eguraldi on batean, illuntzean, lañorik gabe dagonean? Goi ori eta illargia betea edo bete-xamarra dagonean, ez dezute ikusiko, len bezela, goia urdin-urdin eta izarrez betea. Ez da lengo laurdenik ere ikusten. Ori zerk egin duan? Mundua dena zikindua dagola, betik asita goraiño, kontaminazioa esaten zaion orrekin, noski.

— Bai, egia da ori —erantzun nion— nik ere begiratzen diot iñoizka klaro dagonean, eta ez det ikusten len aiña izar, eta gutxiagorik ere.

\* \* \*

Badira beste kontu edo esames geiago gure aurrekoai entzunak, au adibidez: gizon bat ari omen zan, illargitan, egurrak ostutzen besteren basotik; eta sorta aundiegia egin nunbait, eta ezin jaso bizkarrera. Eziñean maldizioka ari zala, esan omen zuan:

— Jaso bear diat, ba, illargiak eramaten ez banau beintzat.

Eta illargiak beregana eraman gizon ura, bere egur sorta ta guzi. Illargi betea eta argi dagonean ikusten omen da nola dagoan illargian, gizonaren irudia bere sortarekin.

Gauza bat da ikusten dana: illargia ez dala garbia, erdi parean illunagoa dala. Ori nik ez dakit zergatik izango dan. Nik baiño obeto dakitenak izango dira gauza oien berri, ez da zalla-ta. Ala esan oi dute batzuk: illuna ikusten dan sail ura lurra dala, eta gañerakoa, itxasoa edo olako zerbait.

Nik besteai entzunak eta neronek ikusiak jarri ditut, geienak, baiña ontara ezkerro, au ere esan bear det: udaran eguzkia bezela, neguan illargia altuago edo gorago izaten dala. Ori edozeinek dakigu, eta zergatik ote da? Nere uste-tan, neguan gauak luzeak eta argi palta geiago izaten dalako izango da.

Eizak ere illargitan joaten dira beren pasea dutenean. Ni ez naiz eiztaria, baiña ondo daki-

gu pase garaian, goia garbi dala, emen ez dala eizik gelditzen. Eta arrazoi dute, emen gelditu ezkerro ez diete pakean uzten-da. Pakea dagoan tokira joaten dira.

Illargiaren kontuakin naikoa luzatzen ari naiz, baiña au ere esan bear det. Askotan egon izan naiz pentsatzen illargia betea danean eta oskarbi, gu bizi geran tokitik begiratuta, San Markos alde ortatik, illunabarrean azaltzen danean, oso bertan dagola ematen dula. Baiña urruti egongo da dudarik gabe, eta ala obe, aldean balitz ez lioteke pakean utziko-ta.

\* \* \*

Orain prallea eta Pernando Amezketarra-ren arteko kontuakin bukatuko det. Pralleak gure gazte denboran, eskean ibiltzen ziran. Base-rrietan biltzen zuten geiena; babarruna eta dirua ere berdin ematen zieten.

Apropos artarako egiñak izaten zituzten eta *morralak* esaten zitzaien, bi aldetan poltsa eta erdian utsa, bizkarrean ibiltzeko babarrunarekin.

Eskean ibiltzen ziran pralle oiek, eguerdi aldera, bikarioaren etxera bazkaltzera joateko oitura zuten nunbait, eta Pernando-k ori jakin.

Bein asi omen zan pralle bat Pernando zirikatzen, illargira zenbat bide, edo zenbat denbora bearko luken joan eta etortzen, etabar galdezka. Nik ikasi nituan Pernandori buruz jarritako bertso batzuk. Bi dijoaz, eta baten Pernando-k pralleari emandako erantzuna:

Pralle bat joan zitzaion  
galde egitera:  
“Illargirako zenbat  
bide ote da?”.  
Garrondoari azka  
orduko tankera,  
egin zion beldurrak  
zegoan papera:  
“Araño joatera  
bastante neke da  
dudatutzen gera,  
baiña andik bera...”  
Bereala kontua  
zion atera.

“Bedorri jartzen bada  
illargian bertan  
ordulaurden bateko  
bidea bueltan.  
Amabiak laurdena  
gutxiagoetan,  
zuzen abiatuta  
minutu oietan;  
zer moduz goietan?  
leku argietan,  
eguardietan,  
sabela dietan,  
Bikarioan maian  
amabietan”.



---

## **Bide konponketa edo *Malobra***

**O**RAIN emen, beste oitura edo lan bat nola zan idatziko det. Nik uste erri geienetan izango zala eginkizun ura, gutxi-asko: bide konponketa edo malobra. Goierri-aldean auzolana esaten zitzaion lan ari.

Gurdi-bideai etzitzaien kaso aundirik egiten alde aietan; espaloiak ziran gurdi-bidez aparte oiñezkoak ibiltzeko-ta. Aiek, urtean bein edo, pixkat txukundu, eta kitto.

Oso ezberdiña zan emengo auzolana edo *malobra* deitzen ziotena. Emen bide guztia konpondu bear izaten zan, gurdi-bide denak, eta bazan lanik asko. Gurdiz eta karroz egiten ziran karriaketa edo garraioak, eta komeni danori bide onak edukitzea, batez ere baserri-tarrai eta an ibili bear zuten animaliai.

Altza-n udaletxea, aiuntamentua, zan garai artan eta aren esanera ibiltzen giñan. Goardak agintzen zuan nun zer egin bear zan, Ballara

bakoitzak sail jakiñak zituan, eta bazekian nundik noraiño konpondu.

Lendabizi, ur-bideak garbitzen genituan, eta gero arri zakarra ekarri Lazunene-ko edo Txoritokieta-ko arrobotik. Ortarako txandaka ibiltzen giñan baserritarrak, beiak karroarekin artuta, arria karriatzen bear zan tokira. Karroa kopaka, eskuz, kargatzen zan. Lanbidea zan ura... Baiña bideak ondo konpontzen genituan emen.

Lana ere askoz geiago egiten genduan emen; erri-bideak zirala-ta, udaletxeak agindu egiten zigun-da. Baserritarrentzat naiko lan astuna eta gogorra izaten zan.

Udaberrian egiten zan lan ura, eta arratsaldetan bakarrik. Eguardi artean ganadu jate-nak eta beste lanak egin eta arratsaldean bide-a konpontzera, etxeko beste lanak utzita.

Gu bizi geran ballara ontan zortzi edo bederatzi famili giñan, asi Balardiñe, eta Bustin-Txulo-ra bitarte; naiko bide luzea eta aldapa gañera.

Lanera ez giñan beti danok joaten, eta goardak zenbat giñan kontatzen zuanean, bakoi-tzarentzat koartillo bat ardo ekartzen genduan Otxoki tabernatik, illunabarrean arrantxoa egi-teko. Ura zan gure jornala, aiuntamentuak ematen ziguna. Jateko zerbait etxetik eramaten zuanari ondo etorriko zitzaion ardoa edateko.

Baiña denak etzuten eramango, noski, eta batzuk jaten eta besteak begira egoten zirala ere entzun izan det. *Malobran* ari zirala, bein, arrantxoko garaian, jatekorik eramane etzua-

nak bestea jaten ikusi zuanean, inbiriz esan omen zion

— Ori dek jan bearra, motel!

Eta jaten ari zanak:

Jan zak arria!  
Orrek kenduko dik  
gosea ta egarria.  
Nik aixa jango diat  
neronek ekarria!

\* \* \*

Altza erri aundia zan: ia Loiola-tik asi, Martutene, Astigarraga, Errenderi, Pasai Antxo, Buenabista, Errera eta Intxaurrondo-raiñoko bueltako lurrak bereak ziran. Etzuan Donosti-ekin zer ikusirik; bere buruaren jabe zan, aiuntamentu eta guzti.

Nik entzun izan detanez ordea, apari ederrren bat bitarteko zala, Donosti-k eta Altza-k bat egitea erabaki. Orduan bukatu ziran emengo bide-konpontze eta *malobrak*.

Zana-zala, guk beintzat, diferentzi ederra billatu genduan. Udaberria etortzeko beldurrak egoten giñan, ditzosozko *malobrak* noiz asiko-ta.

Baiña Altza-n baziran gizonak, bastante gañera, pena zutenak eta orduko alkate eta aiuntamentuko kontzejal batzuegatik gaizki itzegiten zutenak. Nik uste arrazoi paltik etzutela. Aspaldiko kontuak dira, eta aietako asko edo geienak beste mundura joanak dira, baiña min zutelako esaten zuten:

—Donosti Altza-ko erriaren inbiritan zegoken beti, eta orra, berak nai duana lortu dik. Altza-ko aiuntamentua engañatu dik Donosti-koak; apari baten truke erria saldu zigutek!

Orain Donosti eta Altza biak bat egiñak daude, bai etxez eta bai bidez, eta kanpoko jendea geiena, beste erri askotan bezela.

Ala ere, nik Altza asko maite izan det beti, eta naiz orain ez joan, gure etxetik urruti dago-lako, ez naiz aaztutzen ango lengo ta oraingo lagun zaar jator aietaz.

Altzako iru apaiz jaun ezagutu nituan nik, bertako semeak; etorri ere bai neregana, larrialdi batean lagun egitera. Aiek ere il ziran, baiña zeruan egongo dirala espero det. Ea an biltzen geran betirako.

## Etxean ura jartzea

**N**I, orain bizi geran etxera etorritako urtean, milla bederatzireun eta ogeitabederatzian, bide-konpontze lanak egin ziranean, sortu zitzaigun beste lan bat ballara ontan, nik uste, malobra bera baiño gogorragoa oraindik. Baiña lan ari ezin zezaiokeen esan malobra, “buenaobra” baizik.

Auzo ontan etzan etxeetan urik artean; Altza-ko baserrietan ba omen zan ordurako. Baiña gure auzoko gizon bat kontzejal jarri zan, Garrostegi-ko Agustin Garmendia, *amerikanoa*, ain zuzen.

Arek itzegin zuan aiuntamentuan, nunbait, ballara au urik gabe nola zegoan eta jarri ote zitekeen, Altza-ko beste baserrietan bezela. Baiezkoa lortu zuan, baiña baserritarrak egin bearko gendula tuberia jartzeko zanga, eta tuberia jarritakoan, berriz, zanga berdindu. Tuberia jartzeko gastuak, berriz, erdia aiuntamentuak eta beste erdia baserritarrak ordaintzekotan.

Egokiena, Martutene aldetik astea zala, Balardiñe baserriaren ondotik, baiña naiko urruti; kilometro bat bide etzuan asko paltako. Lan asko zegola, baiña konformatu giñan egiteko. Udazken aldean asiko giñala eta ea negurako jartzeko modua egiten genduan.

Baserrietako emakumeak ziran geien animatu ziranak lan ari ekiteko. Lenbailen egin bear zala esaten zuten. Izan ere, aspertuak baizeuden erropa garbitzera ibaira joaten. Aparte dago, gañera, emendik ibaia.

Makiña bat lan egin genduan pikatxoi, pala eta atxurrez, baiña jendea kontentu zan sukaldean ura jarri genduanean. Eguberrietako bukatu zan eta Eguberri jaiak alai pasatu genituan, nork bere etxeetan. Ez det uste geiago iñor joan zanik ibaira erropak garbitzera auzo ontatik. Etxe atarian ganaduak edateko eta erropak garbitzeko askak egin ziran, eta kontentu emakumeak.

Ez dakit zenbat, baiña urte askotan aritu ziran ala, labadorak etorri arte; eta kontu auek orain dala irurogeitasei urtekoak diranez, kontuak atera baserrietara noiz sartu zan labadorea...

Oso ondo etorri zitzaion emakumeari makina orren laguntza, bera lanean ari dan bitartean beste edozer egin lezake-ta. Esan liteke bi lan batean egiten dituala.

Nik esango nuke, orain, baserrietan beintzat, askoz txukunago jantzita ibiltzen dala jendea, eta iñora dijoazenean, kaletarrak bezin ondo jantziak, gizasemeak, eta emakumeak,

zer esanik ez. Zein diran baserritarrak eta zein kaletarrak ez da errez ezagutzen.

Gauzak erruz aldatu dira orain irurogei edo irurogeitamar urtetik onera. Alde aundia dago ordutik onera, baiña ala ere, oraindik obetoago ikusi nai, batez ere gaurko gazte jendeak.

Gure denboran gertatuak eta ikusiak, esanda ere, ezin sinistu dituzte, baiña guk aiña gora-bera ezagutu bear badute, izango dute zer esana zartzarora allaitzean oiek ere.

## Gero eta kontrario geiago

**N**ERE iritziz, eta uste det danok ari gerala ikusten, gure lurretan eta baratzetan len baiño pizti edo zomorro txar geiago degu. Garai batean etziran kontrario asko sortu zaizkio baserritarrari, batez ere baratzetan.

Adibidez, oietako bat patata-zomorroa da, len beiñere ikusten etzana gure lurretan. Esaten dute Alemania-tik etorria dala onera. Nik ez dakit nundik etorria dan, baiña bada ugari oraintxe! Zomorro ori emen azaldu zala badira urte batzuk; gerra ondoren laister. Orain, ala ere, badaude botika onak kontra egiteko edo zomorro ori galtzeko, eta eskerrak orri. Bestela or geldituko giñake patatik batere gabe.

Beste gauza geiagorekin ere bai, baiña bainarekin esate baterako, len, erein eta ainbes-tez, biltzera joan arte ez genion kasorik egiten. Ez genduan pentsatzen ezer pasa bear zitzaio-nik. Gaur berriz, lorea ateratzen asten dan bezin pronto, ez badiogu zerbait egiten, atera aala jaten diote txoriak. Eskerrak orren kon-



trako ere badaudela plastikozko zintak etabar, txoriak izutzeko.

Letxu aziarekin ere, beste orrenbeste gertatzen da; ereindakoan ez badiogu plastikoa, ari zuria edo zerbait izugarri jartzen, ez dago letxu landarerik arrapatzerik.

Porru eta tipula landarearekin zer esanik ez. Len beiñere izaten etziran gauzak edo gaitzak jotzen ditu orain. Landarea azitzen ari danean, mimikoan arra sortzen zaio, eta botika bota bear landarerik izango badegu.

Danen kontrako erremedioak sortu dituzte, eta eskerrak orri. Baiña urtean zear diru asko bear da botiketean. Nik uste botika saltzalleak obeto ari dirala baserritarrak baiño.

\* \* \*

Denbora batean, apaiz jaunak *konjurua* esaten zitzaion errezua egiten zuten trumoi eta tximista gogor astean eta ekaitz zakarra zetorreanean. Baita ere baserriren batean ganadua gaitz txarren batek jotzen zuanean.

Errezu edo *konjurua*-ri buruz entzun izan det, ez dakit egia ala txistea dan, baiña...

Baserriko etxekoandre batek esan omen zion erriko apaizari:

— Gure baratzako azak eta koliflorak arrez beteta daude, eta joango baziña *konjurua* egi-tera... Ea akaatu edo alde egiten duten ar zikiñ oiek...

— Bai, joango naiz, biar edo etzi...

Esan bezela, joan da, egin du konjurua apaiz jaunak, baiña arrak, baratzen, lengo moduan ikusten etxekoandreak. Eta berriz joan apaizarengana eta zer gertatzen zan esan zionean:

— Bai, baliteke, lengoan arren kontrako konjurua egin nuan bakarrik, eta emeak ere izango dira an, noski-ta, joango naiz berriz, eta danen kontrako konjurua egingo det.

## **Ganadu ermandade edo kofradiak**

**N**ERE gazte denboran, Goierrian nintzala, bazan ganaduen ermandadea esaten ziztaiona. Emen, berriz, kofradia deitzen genion; baiña orain batere ez, bukatu ziran kontu aiek.

Goierrian nintzanean, ganaduen gora-bere-tan ez nintzan metitzen, baiña dakidana jarriko det. Gero esango ditut emengoak.

Badakit, an ere, urtean bein mudatzen zira-la ermandadeko gizonak, galtzen zan beia edo txekorraren jabeari zenbat ordaindu bear ziztaion eta abar erabakitzeko. Baiña beterina-rioren esanera egin bear ziran gauzak: al bazan aprobetxatu; bestela berriz, zuloa egin eta an sartu. Gaitz txarren bat ez bazuan, kofradian aprobetxatzen zan zeziña egiteko, geienetan.

An, Goierrian, gizon bat bazan ortan ibiltzen zana, ganaduak larrutzen. Gero, aragi puska asko egin bear izaten zan eta etzan lantegi

erreza denari razio igoala jartzen. Danen gustoa egiten oso zalla. Ortarako, aragi mordo bakoitzaren gañean, numeroa jartzen zitzaion; unotik asi eta zenbat baserri, ainbeste numero. Bakoitzari tokatzen zitzaiona artu, eta kitto! Aundiagoa edo txikiagoa, arekin konformatu bear. Aragia baiño ezurra geiago izango zan igoal, baiña dena ona zan orduan, ez baizan aukera aundirik.

Zeziña eginda eltzean sartu puska bat eta gusto ederra ematen zion olioaren partez. Olioa ere kontuz erabili bear orduan, ez baizan aukera aundirik.

Zeziña kontuakin ari naizen ezkerro, au ere jarri bear det. Zeziñik goxoena ardikiena da. Guk eta beste askok, Goierrian, mendi baserrietan batez ere, Eguberri jaietarako, ardi edo aari zaarren bat il oi genduan mondejuak egiteko eta mondeju-zopak jateko. A ze nolako poza eukitzen genduan Eguberriak etortzeko...!

Mondejuak beltzak egiten ziran gure gazte denboran. Esteak, aundiak eta txikiak ere, betetzen ziran odola, tipula, porrua eta segua-ekin, ardiaren segua ederki aprobetxatuz. Jateko, lendabizi mondeju-zopak eta gero mondejuak. Apari ederra izaten zan.

Gero ikasi zuten mondeju txuri eta fiñagoak egiten. Orain ez da egingo, noski, mondeju beltzik. Nik ez det aspaldian jan eta ezin esan nolakoak egiten dituzten. Baiña oraindik ere badauka naiko fama, Goierri alde ortan, mondejuak eta mondeju-zopak.

\* \* \*

Goierrian nola egiten zan jarri det; esan det dakidana. Orain Altza parte ontakoak esango ditut. Emen ere bagendun, Goierrian bezela, ermandadea, baiña emen guk kofradia deitzen genion, edo obeto esanda, *konpadria*, eta oso ezberdiña zan Goierri-koen aldean.

Altza-k baserri asko zuan ni onera etorri nintzanean, gaur askorik ez badu ere. Jende asko giñan konpadrian; denak ez, baiña geientsuenak bai. Emen listeroa genduan eta kajero ere berak egiten zuan.

Illean bein biltzen giñan Altza-ko Martillun tabernan, jai arratsalde, ordu jakiñean. Tabernako nagusia bera genduan kajero eta listero eta lista pasatzen zuan zenbat ganadu zan jakiteko. Buruko tokatzen zana kajara bota eta ganaduren bat galtzean, kajan zegoan dirutik pagatu ganadu jabeari, baiña beterinarioak esan bear zuan zer egin.

Emen geienak saldu egiten ziran, oso derrepente ezpazan galtzen beintzat. Zutik joateko gauza izan ezkerro, koartelean bazan mataderia, ta an iltzen ziran geienak. Gutxi pagatzen zuten, baiña lanik errezena ura zan konpadrian zeuden baserritarrentzat.

Konpadrikoak ziranak eta ez ziranak ere bai, egiten genituan jai bereziak. San Anton egunean, adibidez, meza-nagusia. Sermoiegillea kanpotik ekartzen genduan. Eta gero, bazkaria. Baiña bazkari aurretik, urteko kontuak garbitu, kajan zenbat diru zegoan ikusi, konpadriko gizonak gonbiratu eta abar.

Andik urrengo igandean jartzen ziran gizon berriak, eta ganaduak ikusten ibiltzen giñan baserriz-baserri. Listeroa ere bai, baiña beti etzan ibiltzen. Urte batean, beiak ikusten zebiltzala, baserri batean, billatu omen zuan tranpa: lau beirena pagatzen eta sei edo zazpi ikuilluan. Orduan, listeroak kargu artu esanaz:

— Listan, liburuan, lau bei dauzkazu eta, emen, bei asko ikusten ditut nik!

Eta bei jabeak esan omen zion:

— Bai, urrengo illean listan sartzeko asmo-tan nengoan eta...

Listeroak esan omen zion, orduan:

— Ortarako beterinarioaren zertifikadua bear dezu...

Eta bei jabeak:

— Ni ez naiz ibilliko olako lanetan eta borra-tu nazazu listatik eta kitto. Biziko al gera nola edo ala.

Oitura zan, bei bat kenduta beste bat erosten bazan, bei ura konpadrian sartzeko, beterinarioak ikusi eta sanidadeko zertifikadua bear izatea. Gero, aldeen bizi zan konpadriko gizonak ikusi bei berria listan apuntatzeko. Orrela ziran orduko konpadriko legeak eta oiturak.

\* \* \*

Listero egiten zuana aspertu egin zan azke-nean. Urteetan ere aurrera zijoala-ta, uztea pentsatzen zuala esan zigun. Beste batek artu nai bazuan, arek entregatuko zituala listak, liburuak, kaja eta giltzak. Kargu ura etzuan

iñork artu nai izan eta orra gure konpadria deseginda gelditu.

Kajan bazegoan diru mordo polita eta San Anton eguna nola bait zan, danon bazkaria kajan zegoan dirutik ordaindu zan. Sobratu zanarekin, berriz, partitu bei edo bakoitzeko tokatzen zan moduan. Eta debalde bazkaldu, ta diruarekin bakoitza gure etxeetara.

Baiña nere ustez, konpadria desegitearekin, laguntasuna asko galdu zan; sakabanatu egin giñan gauza ura gertatu zalako. Konpadriak iraun zuan garaian elizkizunak egiten genituan San Anton-etan, meza-nagusia kanpotik sermoilaria ekarrita. Sermoi ederrak entzuten genituan. Geienetan Atotxa-ko prailleren bat joango zan, aita Lasa edo besteren bat.

Aingeru Goarda-ko egunez ere meza-nagusia izaten zan sermoigille eta guzti. Nai zuanak bazkaria ere bai Altza-ko Martillun tabernan. Baiña egun ontan ez giñan San Anton-etan aiña jende biltzen. Meza entzun, amaiketakoa egin eta etxera joaten zan asko.

Gero, San Isidro egunean, zer esanik ez, baserritarren eguna danez, meza, sermoia eta San Isidro-ren irudiarekin prozesio legea egiten zan plazan buelta bat emanez. Ondoren, amaiketakoa eta bazkaria ere bai Martillun tabernan gelditu nai zuanarentzat. Baiña egun artan ere, ez ziran danak gelditzen. Urte garaia alakoa-ta, batzuk arratsaldean lana egiten zuten baserrian.

Orrelakoak eta lagunarteko gauza pranko egiten zan konpadria zan bitartean, bera zala

medio. Ni onera, Altza-ra etorri nintzanean, bereala egin nintzan bertako baserritarren lagun, eta gure etxetik urruti egon arren, pozik joaten nintzan ni Altza-ko lagunengana. Tertuli ederrak egiten genituan, umore ederrean, Martillun tabernan.

Koadrillan bagenituan gizon jator askoak eta, amaiketakoak egiten ari giñala, amabiak entzuten bagenituan Anjelus errezatu. Gauzak kanbiatu dira, ederki, ordutik onera.



## Ganaduakin gertatuak

**K**ONPADRIKO kontuak eta gora-berak jarri ditut, eta orain ganaduakin neroni gertatu eta ikusitako batzuk jartzera noa. Baserritarren bizitza, izan ere, ganadu artean joaten da, neurri aundi batean, eta ez da arri-zekoa gauza onak, eta txarrak ere, gertatzea.

Lenengoa Goierrian gertatu zitzaidan mutil koskorra nintzala. Tamalgarria benetan neri pasatakoa. Nere bizitza guztian gogoan izateko modukoa.

Garai aietan, baserri geienetan bezela, beiak larrean ibiltzen genituan guk ere udaberrian eta udazkenean. Baiña, jakiña, nork berean, besteren terrenora joan gabe; eta orduan, nola etzan itxiturik gaur bezela, norbaitek zaindu egin bear ganadua.

Udazkena zan eta bei-kontu nenbillen. Beiak belardian zaindu bear nituan. Ondoan sagastia zan, eta beiak ara joatea galeraztea zan nere egitekoa. Baiña auzoko nere kide bat,

beste mutil bat, ura ere bei zai ni bezela, eta biok antxe kontu-kontari.

Berriketan ari giñala, konturatu gabe, an joan ziran nere beiak sagastira. Sagarra asko zegoan lurrean erorita, eta, gustokoa dutenez, an asi ziran sagarra jan-da-jan.

Korrika ekin nion eta beiak artu nituan aurrean, baiña an ziran komeriak: sagarra gel-ditu zitzaion eztarrian bei bati. Bereala igerri nion zer zan. Aotik aparra zeriola asi zan.

Larrialdi artan beiarekin etxera joan nintzan, baiña beia aizetuta, puztuta zegoan etxera irixterako, ta etxe atarian erori zan lurrera. An etzegoan ezer egiterik. Ta alperrik ziran nere damuak eta penak.

Orrelakoetan egin oi zan bezela, ermandadeko gizonai abixatu, zer gertatu zan esan, eta iñolako gaitzik ez eta aragi ona zeukanez, ermandadekoen artean partitu.

Ala bukatu zan egin nuan okerra, bizi naitzen arte aaztuko etzaidana.

\* \* \*

Beste kaso au eta ondorengoak, emen, Goierri-tik etorri ta gero paseak dira.

Guk urte askoan eramán genduan esnea auzoko Uba komentura. Berrogeitamar bat urtean bai. Une batean, ordea, an bear zan ainbat esne ez sortzen etxean, eta auzoko beste baserri batetik ekarri bear erosita, osatuko bazan.

Baiña bitartean, umea egiteko punta-puntan eduki bei bat etxean, eta pozik umea egingakoan naiko esnea izango genduala pentsatuta. Beiak umea noiz egingo zai, beraz.

Etorri zan umea egiteko ordua, eta beiak umea ezin egin. Gauz onik etzala ikusitakoan, auzoan bazan beterinarioaren ordeztan beiari umea kentzen ibiltzen zan gizon bat, eta beragana jo genduan. Olako kaso asko ikusia zan gizon ura.

Abixatuta etorri zan, miatu zuan beia, eta esan zigun:

— Txekorra oker dauka, eta zuzentzen lan txarrak emango dizkigu.

Animo ederra eman zigun! Ederki kostata, baiña azkenean, zuzendu eta kendu genion txekorra, baiña illa jaio zan. Orduan esan zigun:

— Kontu izan bei onekin. Egosi eta eman pasmo-belarraren ura segituan.

Eman genion agindu bezela, baiña andik bi ordurako il zan gure bei gaxua. Orra gure pozak eta usteak pikutara joan...!

Txekorrak ankarekin ume-tokia edo zerbait zulatua izango zuala seguru asko esan zigun gizon arek, eta ala gertatu zan. Altza-ko konpadrian geunden gu garai artan, eta arakiña ekarri, larrutu eta puskatu ondoren, konpadrikoen artean banatu zan. Bei aundia eta gizena zanez aragi mordo ederra zeukan

Ez bei eta ez esne gelditu giñanean, bei berria erosi bear, eta dirua palta. Dirurik gabe, berriz, zer egin? Norengana jo?

Altza-n bazan, ordea, tratante on bat Merkader baserrian bizi zana. Lendik alkar ezagutzen genduan, eta zer gertatu zitzaigun esan nionean, esan zidan:

— Etorri zaitez gure etxera eta nik emango dizut bei on bat, eta pagatuko didazu diruz osatzen zeranean. Esnea erosten etzaitez aritu.

Ala, urrengo egunean joan nintzan eta oso bei ona ekarri nuan. Egunean ogei litro esne paseak ematen zizkigun, eta parrokirako bear zan esnea osatu ezezik, sobratu egiten zitzaigun.

Orra, tratante on ura zala medio, gure penak eta naigabeak gozatzeko modua egin. A ze nolako mesedea gizon arek guri egin ziguna!

\* \* \*

Orain datorren gertaera au ez da aspaldikoa, orain dala zazpi bat urte gertatua gure etxean.

Sekula gertatzen ez dana bein gertatzen omen da. Guk ala esango degu, beintzat.

Etxean jaiotako bigantxa zan aurrerako utzia, eta oizkoa edo normala danez, bi urte inguru zituala egin zuan lenengo umea. Oso gazterik bear bada.

Andik urte ta erdira, bigarren umealdian, bixkiak egin zituan, oso txekor onak gañera. Gero, urte ta erdira edo, bixkiak berriz ere; aiek ere normalak.



Ainbat maite duan bost urtean sei ume egindako beiarekin. Ezagun du, bai, ganadu maitalea dala.

Eta andik denbora beretsura, beste txekor bat, laugarren umealdian, beiak, gutxi gorabera bost urte zituala. Sei ume, beraz, bost urtean.

Orrelakoak geiago ere gertatuko ziran, noski, baiña gure etxean nik ez nuan ezagutu orrelakorik.

Oraindik etxean dago beia, eta arro aritzen naiz esaten askori, bost urtean sei ume egingako beia dala. Motiboak baditut nere ustez, ez da ala?

Ni beti izandu naiz ganadu maite oietakoa, baiña ez dakit maite ote degun merezi ainbeste.

\* \* \*

Bukatzeko, beste kasu au jarriko det. Orrelakorik ikusi gabea nintzan etxean.

Au gertatu zala badira zortzi urte. Txekor zazpiki bat jaio zitzaigun, eta ori ez da arritza, asko jaiotzen dira-ta.

Baiña ain txikirik nik ez det ezagutu. Arku-mea zirudien. Ez genduan uste bizirik irtengo zanik...

Txikia izanagatik, sana izan, nunbait; eta aur baten gisan, esnea emanaz, ederki kostata, aurrera atera genduan.

Txekor zazpiki ura gai artuta, bertsoak jarri zituan gure semeak, Joxe-k. Eta bertso batzuk jarrita, uste det, naiko kontuak badirala base-ri batean gertatuak izateko.



Au da txekor zazpikia, polita bezain txikia; biberoiari esker bizirik ateratakoa.

Beiak umea laister  
egingo omen du,  
aitonak esan du,  
zer gerta ere inor  
ez bedi aldendu.  
Une larri aietan  
nola ez lagundu!  
Aurreratua dator  
ez dabil berandu,  
egiten asi eta  
ederra egin du!

Beiak egindakoa  
zala nola esan?  
Ain txikia bait zan;  
ao-zulotik aize  
arnasa ar zezan.  
Bere onera azkar  
asko etorri zan;  
txikia izan arren  
osasuna izan,  
andik ordubetera  
zutikan jarri zan!

Aitona txoraturik  
dago berarekin,  
eta zaintzen jakin,  
ondo konpontzen dira  
biak elkarrekin.  
Ikusten duanean  
biberoiarekin,  
saltoka beregana,  
giro da arekin!  
Ez du ezer jakin nai  
beste inorekin!



---

## Erlezaintza gaztetatik gaur arteraiño

**G**URE jaoitetxean, Goierrian, erle asko izaten genduan. Gure aita zanak izugarriko lanak egiten zituan. Afizio aundia zuan erlezaintzarako, eta garai artan gaurko aurre-  
rapenik ere etzan eta, alperrik ere lana pranko egiña zan.

Erleentzako kajak berak egiten zituan, lau olekin. Bereala egin ere erdian gurutze batekin. Gero, bi aldetan tapak, eta gurutzearen parean zirrikitua, eta apal bat erleak gelditzeko lanean zebiltzanean.

Kaja ari *erleuntza* deitzen genion. Neguan eginda edukitzen zituan kaja batzuk, baiña, askotan, geiago bear, eta orduan ibiltzen zan gaizki. Uste baiño erle-*seme* geiago ateratzen ziranean denak sartzeko aiña kaja ez, eta orduan komeriak.

Ala ere, egingo zuan kaja azkar. Ola auke-  
ran edukitzen zuan etxean bada ezpada ere-ta.

Illunabarrerako pronto egongo zan erleuntza, baiña nola sartu erle-semea? Al zan bezela.

Oso goian edo altuan bazan, gaizki ibiltzen zala esaten zuan; baiña etzuan lagun bearrik izaten. Bakarrik moldatzen zan, nola edo ala. Erle-semea bajuan bazan, berriz, errez sartzen zuan. Aldamio gisako bat edukitzen zuan artarako egiña, bi eskillerakin bezela; eta ura jarri erle-semearen alturan, kaja ondo-ondoan, erle-semea jotzen zuala, eta bera sartzen zan kajara.

Ortarako, kajako gurutzea eta inguruak eztiarekin igurtzita eramaten zituan etxetik. Gure etxean nola beti egoten zan eztia, oso errez sartzen zirala erle denak kajara esaten zuan gure aitak, erle-semea zegoan adarra pixkat jo edo dantzatuta.

Urrengo egunean, illunabarrean, kajari bi aldeak itxi, eta bear zan tokian jarri, eta kitto.

Gure aitak etzuan burua edo aurpegia tapatzeko jantzirik erabiltzen; ezta goanterik ere gaurko egunetan bezela. Brusa zaarren batekin tapatu burua, eta aurrera. Makiña bat zatzako artua izango zan bere denboran; baiña etzan beiñere erneatzen eta asarretzen. Gustoko lana, nunbait.

Gurean, sagastian egoten ziran erleak eta geienetan baju-xamar gelditzen ziran erle-semeak. Orrek lana asko errezten zion gure aitari.

Kajak edo erleuntzak arri gañean jarri bear, eta artarako tokia ere prestatuta edukitzen zuan. Neguan egiten zituan lan oiek geienetan.

Arbola gañetan ere edukitzen zituan kajak erleentzako; baita sartu ere, iñoiz, beren gisa erleak kajara. Baiña oso gutxitan gertatzen zan ori. Erleak umeak botatzen asten ziranean esaten zigun:

— Gaur joan erletegira, eta ikusten dezute-nean erle-semea ateratzen, jo pertza makillarekin, zarta-zarta, eta oju egin, etxera ea sartzen dan bera bakarrik, kajara.

Sartu izan ziran beren gisa, bai, baiña oso gutxitan, len esan bezela.

Gure aita izketan aritzen zan erleak kajan sartzen ari zan bitartean:

— Txintxoak, txintxoak zerate, eta sartu etxera... egin lana, maiteok...

Maldizioka aritzea baiño ohea izango zan, noski, lan artan ere ondo itzegitea.

\* \* \*

Udazkenean, San Mielak inguruan, beti ilberan, aritzen giñan eztia kentzen. Gure aitak esan oi zuan erleak, ilberan mantsoagoak egoten zirala ilberrian baiño.

Eztia kentzerakoan, iru lagun joaten giñan, geienean illunabarrean, illunarekin batera. Ordurako markatuta edukitzen zituan zeïnek zeukan eztirik geien. Batzuei ez genien kentzen, indarrean zeudenai bakarrik. Ez pentsa, iru lagun izanagatik, egun bateko lana zanik; iru edo lau egun bear izaten genituan lan ura egiteko.

Nola egiten genduan? Zartagi aundi batean jartzen zuan egur-ikatzarekin egindako brasa, luzaroan iraun zezan itzali gabe; eta nola kea bear duan ortarako, zaku zaar puskek, lokotxa puskatuta, tabako zuztarrak etabar brasaren gañera bota kea ateratzeko. Lendik prestatuta egoten ziran oiek ere.

Gero kajari, erleuntzari, zirrikitu bat egin, eta andik kea bota, aberaska kentzen asterako. Erlea keak asko umiltzen du, eta gañera alde egiten dute. Ez da orrelako xixtima edo adelanturik erleari ezta kentzeko.

Orain ere ala segitzen degu guk, eta besteak ere bai. Kea bear da erleak mantsotzeko edo bidaltzeko. Bestela zalla izango litzake ezta kentzea erleari.

\* \* \*

Beste lanetan bezelaxe, orain, asko aurreratu da erle lanetan ere, nola zaindu bear diran etabar. Gure gazte-denboran eta orain, oso ezberdiñak dira erle kontuak.

Guk, Goierrian giñan denboran, ez genekien kajak bastidorearekin ziranik ere. An, kajak utsak izaten ziran, eta erleak egin bear aberaska eta argizaia. Askoz lan geiago egin bear, beraz.

Gaur, ezta kentzeko makinak daude, eta ezta kendutakoan, bastidorea osorik gelditzen da, bereala ezta egiten asteko. Guk ez genekien gauz oien berri batere.

Goierri-ko garaiarekin jarraituz, guk, batzutan geiago, bestetan gutxiago, baiña ezta bas-

tante izaten genduan. Ez giñan iñoiz eztirik gabe gelditzen.

Inguru artan apenas zan erlerik iñun. Nik ez nuan sentitzen edo ikusten beintzat. Gure etxera bai joaten ziran inguruko baserrietatik norbaitek eztarriko miña zuanean, “ea ezti pixkat ematen didazun, mesedez” esanez. Bai eman ere gure amak.

Eztia kentzeko makinarik etzanean, aberaska puskak egin eta eskuakin estututa kendu bear eztia. Lan ura, geiena, aitak egiten zuan bere gustora; baiña lan aundia zan batek egiteko, eta laguntzen genion guk ere, ezti asko baldin bazan, beintzat.

Gero argizaia gelditzen zan aberaskan, eta uretan irakiten eduki ondoren, argizai garbi-garbia biurtzen da, oztutzean, uraren gañean. Argizai asko ateratzen genduan, eta arekin ondo baliatzen zan gure ama.

Argizai aren truke argizai-listai edo bildumena asko ematen zioten argizai-oletan jartzeko elizan eta etxean ere bai. Argi-indarrik etzan artean, eta aren bearra izaten zan, petroleokiko kinke aietaz aparte, ikullu, sukalde eta koartoetan argi egingo bazan.

\* \* \*

Ni Goierritik onera etorri nintzanean, egon giñan erlerik gabe urte batzutan; baiña aitak emandako griña edo bendizioa izan nunbait, eta berriz asi nintzan erleakin. Gaur ere segitzen diot nere neurrian. Eta emen nola asi nintzan esango det orain.

Altza-ko Gazteluene baserrian zituan erleak Joxe Ramon Erauskin-ek, eta ondo jarriak gañera. Bera nola baitzan arotza edo ebanista, kajak, bere bastidore eta guzti, dotore egiten zituan bere etxean.

Oso lagun egin giñan biok Altza-n, eta egun baten ala esan zidan:

— Etorri zaitez jai arratsalde batean gure etxera, eta ikusiko dituzu gure erleak; eta gustatzen bazaizkizu, nik emango dizut kaja bat zuretzat.

Joan nintzan, eta an ikusi nuan lenengo aldiz kajak eta bastidoreak nolakoak ziran. Guk, orain ere, kaja klase aiekin jarraitzen degu.

Ala, gurean ere asi ziran erleak ugaritzen. Joxe Ramon-ek uzten zidan makina ere bastidoreai eztia kentzeko. Oso ondo portatu zan nerekin Joxe Ramon.

Erlea nola ekarri nuan? Joxe Ramon-en etxera erleak ikustera joan nintzanean, esan zidan:

— Biar jarri tokia pronto erlea jartzeko zuk, aztu gabe. Biar gauean jarriko det nik kaja ondo itxita, eta zu, etorri etzi goizean karretillarekin eta eramanez.

Pozik asko ekarri nuan nere lenengo erlea edo kaja.

Erakutsi zidan, baitere, nola jarri bastidoreari alanbreak eta argizaia, eta nola ibili erleekin etabar. Esan zidan, gañera, Donosti-n bazeudela aurpegia tapatzeko maskara, eskue-tako goanteak eta bear ziran gauz guztiak,

Mokoroa azi-dendan, eta erosi egin bear nituala ondo ibiltzeko ta erleak ez eltzeko. Baita erosi ere nik.

Ala nenbillela, nere erleakin, gizon bat etorri zitzaidan, emen erleak ikusi zituala nola zeuden, eta oso toki ona iruditzen zitzaiola erlentzat esanez.

Gallegoa da gizon ori, oso ona eta jatorra, eta arotza gañera ofizioz. Afizioa izan arek ere, eta esan zidan gustatuko zitzaiokeela ementxe erleak jartzea, ni konforme banintzan. Berak egingo zituala kajak, bastidoreak eta bear ziranak. Erle-semeak sartzen ere bai, lagunduko zidala.

Biok konforme giñan, eta nik ematen nion materiala kajak egiteko. Gaztain-ola zan materiala, eta oso ondo egiten zituan kajak eta bastidoreak. Primeran moldatzen giñan alkarri lagunduz. Arek egin zuan makina berria bastidoreai ezta kentzeko ere.

Orrela ibili giñan bastante urtetan, ateratzen genduan ezta, gutxi gora-bera erdibana partituz. Allegatu giñan amabost kaja edo erlauntza edukitzera, bi pisukoak.

Bi pisu izaten ditu, bi kaja beraz, erlauntza bakoitzak bata bestearen gañean. Azpiko kajatik etzaiote ezirik kentzen. Beko kajakoa beraientzat, erleentzat utzi bear zaie, negurako jatena izan dezaten.

Askotan ez dute izaten geiegirik, eta zenbait aldiz ill ere bai, goseak, negu gogorra egiten badu. Begiratu egin bear noizik bein.

Eziñean dabiltzanean ezagun izaten dute, eta jatena jarri bear: ezta edo azukre egosiarren ura.

Azukrea gustora jaten dute, baiña ez omen da ona egosi gabeko azukrea jatea. Diarrea ematen omen diote azukreak. Ala esan digute erleen bizitza nolakoa dan estudiantutako gizonak.

\* \* \*

Erleak nola zaindu bear diran laguntzeko Fraisoro-n dago orain bazkuna edo soziedadea, eta an daude ikasitako gizonak eta bear diran gauz guztiak salgai.

Gu ere egin giñan ango sozio, eta bidaltzen dizkigute iru illabetetik bein liburutxo batzuk, erleak nola zaindu, tratatu etabar jakiteko.

Beren gaitzak badituzte erleak ere. Orain dala bost edo sei bat urte, emen izugarritzko gaitz txarra sortu zan; gu, berriz, nekez konturatu, eta ia gelditu giñan erlerik gabe.

Egun batean emen etorri zitzaidan Astigarraga-ko don Jose Agirre apaiz jauna. Urte askoan erleakin ibilia zan, eta lendik alkar eza gutzen genduan. Arek esan zidan:

— Ba al dakizu erleetan gaitz izugarria dabillela edo sortu dala? *Barreiros* omen da bere izena, eta azkar ibili bearko degu. Gaur arratsaldean bertan joango gera Fraisoro-ra. An bai omen dute gaitz orren kontrako erremedioa.

Esan, eta bai joan ere, biok Fraisoro-ra; eta an esan zigun batek:

— Nik emango dizkizuet listoi batzuk, eta sartu beko kajan, erdi-erdian, beraiño, eta ez



da ilko erlerik andik aurrera, baiña biar bertan jarri listoi oiek.

Urrengo egunean, joan erletegira, eta asi naiz begiratzen nola dauden, eta batekoak, bestekoak, emengoak eta orkoak, bost kajetan erlearen arrastorik ez. Seigarrena miatu, eta oso erle gutxi. Ura pena nerea!

Amar, dozena bat erlauntza izango ziran, orduan, gurean; eta, batez ere, don Jose Agirre apaizari eta Fraisoro-n eman zizkiguten listoi aiei esker, batzuk bederen salbatu ziran. Bestela or gelditzen gera batere gabe. Orain iru bat urte il zan don Jose. Zerutik lagun dezaigula.

\* \* \*

Erleak oso bizi laburra omen du. Kasik orain arte ez degu entzun, nik beintzat, eta ezin sinisturik bezela gelditu naiz.

Udaberrian jaiotzen diranak, berrogei egunetik gora ez omen dira bizitzen. Lanean dabiltzala kemenik gabe gelditzen dira, eta beren tokira joateko indarririk ez-ta, kanpoan il bear geienak.

Udazkenean edo negu aldera jaiotzen diranak bizi luzeagoa dute, sei edo zazpi illabete-koa. Urte garai ortan lan gutxiago egiten dute-lako omen da.

Erregiña da bizirik geien irauten duana. Bi urtetan, ezeren okerrik edo gaitzik ezbadu. Baiña irugarren urtera ezkerro zaartu egiten, eta ortan kontu aundia bear izaten omen da.

Bein bi urte pasa ezkeru, erregiña gaztea jarri bear zaio erleuntzari, erlearen bizitza, osasunerako, lanean segitzeko, eta, jakiña, ezta egiteko. Ni eta beste askorentzat naiko zalla izango da gauz oiek danak ondo eramaten. Nik ala uste det.

Lagun bat badet, nik baiño askoz geiago dakiana, eta arek asko laguntzen dit, erlesemeak kajetan sartzen etabar, erlategiak alkarren ondoan dauzkagu-ta. Jubilatua dago, eta arotza da gañera. Kajak eta bastidoreak egiteko ez da gaizki etortzen.

Ari ez diote zast egiten erleak orain dauden jantzi berezi oiek jantzita. Beldurrik gabe ibiltzen da erleen lanak egiten. Oiekin ibili bear duanak ez dauka beste erremediorik.

Kea da geien ikaratzen dituan gauza. Ortarako ere badaude, orain, auspo bereziak, oso onak; eta derrior bear da, ezer egingo bada.

Inguruko belarrak ebakitzera ere illunabarean edo illunduta, kasik, joan bear da; eta euria dala, obe. Ez dute iñor errespetatzen. Oiekin dabillanak, berak bear du errespetoa eta pazientzia.

Badira esaera gisako batzuk nik gogoan dauzkadanak: “ilberan mantsoago daude ilberrian baiño”, “nagusia ezagutzen dute”, “ondo itzezin bear zaie”, “erleakin dabillena edo familiaroren bat iltzen danean esan bear zaie argizaia egiteko elizan jartzeko”, etabar.

Orrelako gauzak entzun izan ditugu, baiña nik ez det oiengan asko sinisten. Baiña esango det, al dan txukunena, xuabe eta patxadan

ibiltzea dala onena. Ondo prestatuta joan, beti, erleengana.

\* \* \*

Gizon bat ezagutu nuan, Zamora-koa zan eta edade aundikoa, baiña erleakin asko ibilia bera ere. Emen erleak ikusi zituan eta konseju asko eman zizkidan. Gertakizun pranko kontatu ere bai, eta orain esango dedan onek arritu nindun geiena.

Erleen eldua edo zastakoa osasungarria zala zion, aurpegiz kanpo; batez ere erreuma sendatzeko. Berak prueba egin zuala eta erreuma sendatu egin zitzaiola.

Beste batek esanda egin zuan, nunbait, prueba ori: erleuntza edo kajaren gañean exerita jarri, erleari bi egoetatik eldu eta pantorrilean eta iztarrean eltzen utzi, dozenerdi bati gutxienez. Medikuarengana joan gabe, ala sendatu omen zuan erreuma. Pixka baterako otzak aterako zizkioten, eta saltoka astea ere ez arritu.

Nik ez dakit egia ala gezurra izango dan, baiña nik ez det egin nai olako pruebarik, bada ezpadare.

Beste au ere esan zidan: asko zekiten gizon batzuk pentsatu zutela erle ontzia kristalezkoa egitea, eztia nola egiten zuan ikusteko. Baita egin ere prueba, baiña alperrik; erleak argizaiarekin kristala tapatu zioten. Barrena illunduta utzi, eta ikusterik ez barrenean argizaia eta eztia nola egiten duten. Eta iñork ez dakila nola egiten dituzten illunpetan.

“Arrigarriak dira erleak egiten dituzten gauzak —zion—. Bein gizon batek besteari galdetu omen zion, ea zergatik diran ain gaiztoak erleak; eta onela erantzun zion: gauza guztiak Jainkoak nola egiñak diran, erleari gauz zoragarri oiek egiteko birtutea eman dio, eta iñor ez arrimatzeko zatzada ori ez balute emango, egiten dituzten ezti ta argizaiak lapurrentzat izango lirake, eta ori ez da komeni munduan”.

Eztia eta argizaiarekin gauza asko egiten dira mundu zabalean, eta oso bearrezkoak dira. Ain da ona ezti... Gaitzak sendatu eta gorputzari indarra eman egiten ditu batean, nola artu jakin ezkerero.

Kontu auek eta geiago esan zizkidan neri Zamora-ko gizon arek.


\* \* \*

Guri Fraisoro-n esaten digutenez, urte aue-tan asko ugaritu da erlea Euskalerrria-n. Nola zaindu bear diran ikasi ere bai, baiña oraindik gauz asko gelditzen zaigula ikasteko.

Ala ere, azken aldi ontan, asko ari omen dira animatzen eta erleak jartzen gure erri ontan; eta Fraisoro-koak prest daudela erakusteko eta laguntzeko. Astean bein edo bi aldiz ematen dituzte itzaldiak, eta jende asko joaten omen da zerbait ikasi naiean.

Ni ere joan izan naiz prankotan, eta jende gaztea eta sasoikoa ikusten zan, geienak euskaldunak, baiña erdaldunak ere dexente. Orre-gatik, euskeraz eta erderaz, bietara itzegiten dute ango langilleak.

\* \* \*



Erlezaintzan. Erle artean, baiña bear diran jantzi eta neuriak artuta.

Orain, bukatzeko, jarriko det baserri batean gertatu zana.

Erleakin ibiltzen zana ill egin zan nunbait, eta etxeko semea edo norbait joan omen zan erletegi inguruko belarra ebakitzera, xano-xano, batere jantzi eta preparatu gabe.

Belarra ebakitzen asi zanean, batek zast, eta besteak zasta, or ekin diote erleak. Eta jakiña, komeriak izango ziran an, eta agoantatu eziñik amorrasi zaio eta ala esan omen zion bere buruari: "ez didazute neri geiago elduko, ez...". Eta jarri omen zituan erle kajak belar onduakin estalita, eta illundu zanean, su eman eta denak erre, kajak eta erle gaixoak. Ori krimena dala iruditzen zait neri.

\* \* \*

Esan edo jarri ditut ikasi edo ikusi ditudanak nere bizitzan, naiz oraindik asko egon ikasteko. Baiña karrera ori bukatzeko, neretzat berandu dala derizkiot.

Bertso batzuk moldatu ditut, azkenerako, erleak gai artuta.

Erleen izaera nola dan  
nai nuke adierazi,  
gaztetandikan zartzaroraiño  
egin detana ikusi.  
Erleengandik al dan guztian  
egiten degu igesi,  
beraiengana nola arrimatu  
ondo pentsatu lenbizi,  
pazientzia bear da baiña  
denak dituzte merezi.

Oiek egiten dituzten lanak  
arrigarriak benetan;  
lendabiziko argizai-gaia  
ekartzen dute anketan.  
Urrena ezti-tokia egin  
jartzen zaizkien kajetan,  
txukunak eta azkarrak dira  
erleak beren lanetan,  
argi bearrik gabe egiten  
dute lana illunpetan.

Egiten duten ezti gozoa  
gustatzen zaigu danori;  
zenbat loretxo zurgatzen duten  
iñork ez dakigu ori.  
Gaitzarentzako botika dala  
iruditutzen zait neri;  
besteak-beste gozatutzen du  
makiñatxo bat eztarri,  
gaixo dagona sendatzen du ta  
kalterikan ez iñori.

Janari billa oso urruti  
joaten diranak badira,  
iru bat milla metro bidean,  
loreak dauden tokira.  
Ain pizti txiki oientzat naiko  
ibillerak ez al dira?  
Gertuan ezer ez dagonean  
bearko jun urrutira;  
euria, aizea ta otza oientzat  
oso etsai txarrak dira.

Erleak gauza utsarengatik  
ernegatzen dira berez,  
onean artu askoz obe da,  
ez asi iñoiz indarrez.  
Kontuz ibili, arren, bai, azkar  
jartzen dirala aserrez;  
zerbait egin nai zaiotenean  
pentsatuta asi aurrez,  
ematen duten frutua kentzen  
ez da izaten ain errez.

Erleengandik zaztako asko  
artu det nere bizitzan,  
orain baiño len askoz geiago  
adelanturik ez baitzan.  
Ala ta guztiz, joan egin bear,  
erremediorik etzan;  
baiña orregatik maldizioka  
ni nekez asiko nintzan,  
nunbait ezta gustokoa ta  
erleak maiteak izan.

Pizti txikiak izanagatik  
langilleak eta fiñak,  
gizonarentzat mesederako  
gure Jainkoak egiñak.  
Ezti gozoa egiten dute  
sendatzeko gure miñak,  
lantegi ontan naiz eta izan  
asko, beintzat, ezjakiñak,  
errespetatzen da zaintzen egin  
ditzagun guk alegiñak.



Erleak Jaunak jarriak dira  
gu guztioi laguntzeko,  
baiña ez dakit zenbat maitasun  
daukagun guk oientzako...  
Sei kilo ezti bear ditut nik,  
urtean neronentzako,  
beraz motibo paltik ez daukat  
pizti oiek goraltzeko,  
ta ara emen nere iritziak  
nai dunak irakurtzeko.

## Lengo diruak edo txanponak

**G**URE gazte-denborako txanponak —guk ez genduan asko izaten, baiña— edo diru kontuak nola ziran esango det, nik, Goierrian nintzala, ezagutuak.

An, *txakur aundia* eta *txakur txikia* deitzen genien txanponei; emen, Beterrian, amar xentimokoa eta bost xentimokoa. Bi amar xentimoko eta bost xentimokoarekin *erriala* egiten zan; eta lau errialekin, pezeta.

Errial kontu arek denbora luzean iraun zuan ogei errialera iritxi arte. Duroari ere *ogerekoa* esaten zitzaion Goierrian, garai artan. Milla errialaz asko itzegiten zan orduan. Berrogeitamar duro ditu milla errialek. Baita ere bi milla errialaz, batez ere ganadu sal-erosketetan. Bestela ere, onek ainbeste eta orrek orrenbeste, prezioak, errial kontuan izaten ziran, eun errial bitarte, geienez beintzat.

Gaurko egunean milla peztakoa, milla duro edo bi milla durokoa bear du ondo ibiltzeko arremanetan. Eta orrek ematen dizkigu, askotan naiko lanak.

Txanpon kontuak, eta zaarrak, esaten ari naizen ezkerro, guk erabiltzen genituan mone-dak edo txanponak, geienak, bost eta amar xentimokoak ziran. Andik ere, nai aiña ez; errez kontatzeko moduan izaten genduan.

Bi xentimokoa ere ezagutu nuan, baiña arek, etzuan ia serbitzen nik ezagutu nuanean; etzuan kasik balio.

### **Zillarrezkoak**

Nik ezagutu nituan, bi errialekoa, pezeta, bi pezetakoa eta bost pezetakoa edo duroa zillarrezkoak. Onek iraun zuan denborarik geien. Emen baziran, mordoska gordeta, gero ondo baliatu ziranak, bost pezetako zillar aiekin.

Bi errialekoak etziran ain ugari ikusten, gure txikitan. Sasoir a iritxi giñanerako izkutu-tu ziran txanpon aiek. Oso txikiak ziran, gañe-ra. Baiña bazuten beren izen berezia: *zezen-dirua* deitzen zioten. Zergatik? Ba omen zan garai bat, beia zezenetara eraman eta, zezena-ren jabeari, bi errial ordaintzen zitzaiona. Artatik dator izena, beraz.

Orra jarri, moneda edo txanpon kontuak, nik ezagutu nituanak eta gogoratzen zaizkidanak.

## Galdutako beste zenbait oitura

**B**EAR bada, erabat etziran galduko oraindik; baserrietan zar-jendeak eutsi naiko dio bizi dan arte. Baiña nik esango nuke, oitura zaar geienak utzi edo galdu ditugula baserritarrak ere.

Ni Goierrian bizitu nintzan garai artan, Erremu egunean, erremu makilla aundiak eramaten ziran elizara bedeinkatzera.

Gero, bedeinkatuta etxera eramandakoan, makilla aiek puskatu eta gurutzeak egiten zituzten baserrietan. Etxeko sarrerako atean josten zituzten gurutzeak ur bedeinkatuan bustita. Leioetan ere jartzen ziran gurutze txiki oietakoak. Gure aita bizi zan artean uste det segitu zuala oitura arek gure jaiotetxean.

Gari-soroan ere jartzen zituan arek gurutzeak, makilla baten puntan josita. Makilla ura lurrean ondo sartu, eta an egoten zan garia ebakitzera joan arte.

\* \* \*

Goierrian, gure etxean, sekula etzan paltako ur bedeinkaturik orduan. Orduko etxekoandreak an edukiko zuten, jasota, armarioren batean, botillan izena jarrita.

Ur bedeinkatu ontzi txiki batzuk ere baziran oiaren buru parean zintzilik jartzeko, ur bedeinkatuz beteta, oean sartzerako beatzak an busti eta Gurutze Santua eta Aitaren egiteko.

Ez dakit, baiña, oraindik baliteke zenbait baserri zaarretan ur bedeinkatu ontzi aiek izatea. Garai aietan, baserrietan beintzat, ez det uste ur bedeinkaturik paltako zanik.

Nik entzun izan det, aurren bat jaiotzean ikusten bazan oso debilla zala, eta iltzeko beldurra zutela, aur ura edozeiñek bataiatu zezakela, ur bedeinkatuaz burua busti ta esanez: "Aur au nik bataiatzen det Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean". Eta Aitagurea eta Kredoa esan eta aur ura iltzen bazan, Zerura joango zala. Ondo ateratzen bazan, eta gauza zanean, eramango zuten elizara dudarik gabe. Gauza auek txorakeriak izango dira askorentzat, baiña egiak dira, eta serio artzeakoak, nere ustez.

Oraindik segitzen diot nik oitura orri. Ur bedeinkatua beti edukitzen det nere koartean, ur bedeinkatu ontzirik ez det baiña.

\* \* \*

Gaztea nintzala, gogoratzen naiz nola joaten giñan elizara Pazko larunbatean, ur bedeinkatua eta su berria ekartzera. Botilla ur bedeinkatuz betetzen genduan, eta su berria edo su

bedeinkatua nola ekartzen zan orain esango det.

Ordubete bear zan gure etxetik elizara buelta egiteko, baiña bazan *ardagaia* esaten ziztaion gauz bat. Arbola edo zuaitzetan sortzen da, eta orain ere aurkitu liteke gure basoko aritz zaarren batean.

Perretxikuaren tankera du ardagaiak, untoaren antza du, eta arbolari ondo peatuta egoten da, tronkoan geienetan. Arbolari kentzean busti-samarra egoten da, umedadea edukitzen du, baiña, ganbaran zintzilik jarrita, bereala sekutzen da. Igartuta bezela, arin-arin gelditzen da gañera.

Ondo sekaturakoan oso errez artzen du sua ardagaiak, eta alako puska batekin joaten giñan elizara, su berriaren billa. Bein sua artu ezkerero, arek etzuan itzali beldurrik izaten, busitzen ezpazan beintzat.

Etxera irixten giñanean, amak, ur bedeinkatuekin Aitaren eginda, botatzen zuan ardagaia sutara, eta kontentu gelditzen zan. Orra, orduko oiturak nola izaten ziran.

\* \* \*

Au nik ez dakit, baiña, oitura baiño geiago, bearra izango zan. Parranda kutsua ere badu onek.

Gaintza-n, gure jaioterrian, taberna bakarra zan. Ostatua eta erriko-etxea edo aiuntamentua denak batera. An, maiztarra, taberneroa izaten zan, da bertan bizi zan familiarekin.

Tabernako etorria pixka zan-da beste zerbait egin bear familia mantentzeko. Laborea bastante egiten zuan, artoa, babarruna eta abar. Bei pare bat ere edukitzen zuan, ederra, gaiñera.

Ostatua erriarena zan-da, maizterrak bazuan eginbear berezi bat. Erriko baserri bakoitzetik, urtean sorta bat lasto edo gari-bala eraman bear zuan ostaturako. Bala, garia arri zabal baten kontra jota, garia jaulki ondoren gelditzen dan lasto-mordoska da. Goierrian bala deitzen genion. Emen, berriz, balkotia. Bi eskukada gari lotuta egiten da.

Biltzen zuan gari-lastoa ganaduantzat zan geiena. Baiña beste zerbaitetako ere erabiltzen zan: gau illunetan tabernatik etxera joateko berandutzen bazan —orregatik esan det parrandakin zerikusia dula— beste argirik etzuanari ondo etortzen zitzaion bidean argi egiteko.

Ortarako, gari-bala estu-estu lotu eta su ematen zitzaion muturrean. Ez dirudi, baiña denbora askoan irauten du. Eta argi ona egin gaiñera.

Gure etxea erritik urruti zan-da, bala batekin etzan naikoa. Baiña erremedio erreza zuan: bi artu, eta bat erretzean, piztu bestea, eta aurrera! Bearra bezelakorik ez da gauzak asmatzeko eta apurotik ateratzeko.

\* \* \*

Ardagaiaren gañean kontu bat badet ondo gogoan artua. Ni oso gaztea nintzala, gure

etxetik urruti gabe, artzai bat zebillen. Gizon edadekoa zan; naiko zaarra, obeto esateko.

Neri, berriz, ardiak asko gustatzen zitzaizkidan-eta, berarengana joan nintzan. Artzaia iztuna izan, eta izketako laguna nai, nunbait, eta esan zidan:

— Zer abil emen, mutiko? Ardiak gustatzen, ala?

— Bai, asko gañera. Arkumeak eta aaria ere bai, bere adar aundiakin.

Ala asi giñan izketan, eta, kontu-kontari ari giñala, zigarroa egin zuan artzai zaarrak, eta:

— Ikusiko dek orain nola piztuko dedan zigarroa...

Eta ni begira nengoala atera zituan poltsikotik labana aundi-samarra, arri koskorra eta ardagai puska bat. Arriaren kontra jarri zuan ardagaia eta labanaren atzearekin arri puskari txispa ateratzen zion, eta ardagaiak su artu zuan, eta arekin piztu zigarroa. Errez asko piztu gañera, eta esan zidan:

— Ikusi al dek beiñere olakorik?

— Ez, ez det sekula ikusi, —esan nion.

Mutil koskorra izan artean eta, ni bai arritu ikusitakoarekin! Zaldibi-koa zan artzai ura, Arruarte baserrikoa.

Gauean esan nien etxean aita eta anaiei nola ikusi nuan Arruarte-ko artzaia zigarroa pizten eta esan zidaten:

— Bai, len orrela pizten omen ziteken zigarroa artzai geienak, txiskeroa sortu zan arte.



Ortako su-arria bear dik, eta ardagaia ondo igartutakoa.

Aiek nik baiño geiago zekiten gauza orren berri.

Su-arria nunbait bazan, eta bada orain ere, txiskero denak arri klase ori bear dute txispa ateratzeko, eta gaurko egunean erretzalle denak txiskeroarekin ikusten dira-ta.

Guk, gaztetan ezagutu genituan txiskeroak denbora askoan iraun zuten. Metxa berezia zutenak ziran, eta sua azkar artzen zuan txisparekin. Pospoloa baiño obeagoa zan aizearekin ere. *Baserrietan txiskero ura erabiltzen* zan, zigarro erretzalle asko zalako baserritarren artean.

\* \* \*

Gure familian bertan ere, aita eta iru anai zarrenak erretzalleak ziran, baiña tabakoa etxean egiten genduan, eta andik erretzen zuten askotan.

Igandean, mezetara joatean, dirurik baldin bazuten, erosiko zuten, jaietan eta perira edo beste norabaitera joandakoan erretzeko. Ala konpontzen ziran orduan, gureak beintzat.

Garai aietan, izan ere, etzan zigarro egindakorik ibiltzen, baserrietan batipat. Tabakoa izaten zan paketetan; *ebra* esaten zioten pakte ari. Zigarroa norberak egin bear, erreko bazuan. Zigarro papera izango zuten askok, eta etzuanak, arto txurikiñarekin egin, eta aurra.

Tabakoa eramateko larruzko poltsa jakiñak erabiltzen zituzten patrikan; *petaka* deitzen zioten poltsa ari.

Ezagutu genduan tabakoa txikitu gabea ere, tabako ostoarekin egindakoa. Sortatxoak izaten ziran, eta *librako sorta* esaten zitzaion, baiña aiek txikitu egin bear. ondo erreko bazan. Ala ere, esaten zuten txikitua baiño askoz merkeagoa ateratzen zala.

Txikitzeak lan bastante ematen zioten, baiña artarako artzen zuten denbora. Tabakoa izateak ematen zioten lanik geiena.

Nere lagun bati, Gaintza bertakoa, entzun nion bein: “Gure aitak esaten dik zigarroa egitea, deskantsatzea dala beretzat, bestela gelditu gabe lanean aritu bearko lukela-ta”. Zigarro erretzalle izugarria zan, baiña oso edade aundiarekin il zan. Arek bazituan larogeitamabost urte gutxienez il zanean. Gizon jator oietakoa zan, eta umore onekoa gañera.

\* \* \*

Asko itzegiten da erretzeak gaitz txarrak sortzen ditula eta abar. Onik ez du egingo, noski, ori bixtan dago. Baiña nik entzun izan diot idazle bati, asko idatzia bere denboran, eta oraindik jarraitzen du, larogei bat urte izan arren:

—Nik ezin diot utzi zigarroa erretzeari. Neri bentaja egiten didala iruditzen zait, askotan. Idazten ari naizenean, aspertuta bezela gelditzen naizenean, zigarro bat erreta askoz errezago etortzen zaizkit burura jarri nai ditudan

gauzak. Idazten saioa egin eta berriz zigarroa erre. Orrela idazten det.

Aurrekoak esaten zuten, tabakoak duan bentaja bakarra, kalterik ez egitea zala. Baiña bentajik ez, eta kalte egiten du, eta ez txikia gañera, sendagilleak diotenez. Nik dakidana auxe da: aita ez, baiña gure iru anai zarrenak, erretzalleak, gazterik joan zirala.

Gu gazteak giñala etzan emakumezkorik ikusten zigarroa erretzen. Gerra ondorean, nik uste, asiko ziran erretzen. Aurrenean arrituta gelditzen giñan emakumeak ala ikusita, baiña gaur egun ez gera batere arritzen; oitu gera ederki. Izan ere, ainbeste ikusten da, eta doto-re asko gañera!

Nik uste, aspaldiko zigarro erretzalle aiek bezela, zigarroa berak egin bear balute, ez litzakela ainbeste erreko gaur egunean.

## San Martzial jaiak

**S**AN Martzialak ni onera, Altza-ra etorri nintzanean, aundikiro ospatzen genituan, etxetik urruti egon arren. Meza nagusira joan gabe etzan geldituko. Al zuan guztia joango zan, gizonezkoa beintzat.

Emakumezko gutxiago joan oi zan. Askok etxean naiko lan bazkari goxoak moldatzen egun ortan. Gaur ainbeste txorakeri gabe, baiña ondo jateko moduko bazkariak izaten ziran.

Orrela ibili giñan bastante urtetan; baiña nere emaztea nola baitzan alaba bakarra, jende gutxi biltzen giñan. San Martzial eguna aste eguna izan, eta Goierri-tik ere iñor gutxi etortzen zitzaigun.

Gero pentsatu genduan, familian, San Inazio egunean zelebratzea, San Martzial eguneko partez. Batetik, nere urtebetetzea, seme zarrena ere Inazio dalako, eta bestetik Loiola auzoko jaiak ere orduan diralako.

Andik aurrera jende geiago biltzen giñan, nere senideak ia denak beren emazte eta senarrek, famili giro ederrean. Geroztik ala segitzen degu San Inazio egunean, al bada famili dena bilduta. Une goxoak izaten dira neretzat, eta besteentzat ere bai, noski. Ala izango al dira, orain eta gero ere...

San Inaziotan Loiola auzoan nola izaten diran jaiak, bertsolariak ekartzen dituzte, eta Joxe gureak izaten du aien kargua, gaiak jarri eta abar. Orain dala bost urte edo, Loiola-n saioa eginda, etorri ziran gure etxera, bazkaltera Joxemiel Argiñarena eta Lazkao-Txiki difuntua, eta ura zan bazkaria eta bazkalondoa igaro gendua...!

Bertso eta txiste,  
iñor ez giñan gelditu triste.  
Kostako zaigu, berriz,  
egiten beste orrenbeste.

\* \* \*

Berriro Altza-ra bueltatuz, esan bezela, San Martzial egunez, meza nagusi ederra autoridade eta guzti. Gero amaiketako, konzejuan nai zuanak, eta plazan ttun-ttun jotzalleak dantzatan egiteko. Etzan beste soñurik garai artan.

Eguerdian eta arratsaldean pelota partiduak. Altza-n bertan ere baziran pelotari onak garai batean, nik ezagutu nituanak. Esate baterako, onenetako bat Joxe Orbegozo zan. Orain il berria da. Aurki dedilla zeruan. Baiña kanpotik ere etortzen ziran pelotariak, etxekoen kontra jokatzeko.

San Martzial biaramonari esan oi zioten gure aurrekoak:

Gaur Santeon, jan da egon.  
Lanerako gogo gutxi baizegon.

Baiña ganadu-jatekoak egiteak ematen zizun naiko lan, onetik egin arren.

San Martzial irugarrena, berriz, Santa Isabel, baserritarren eguna. Egun ortan ere meza nagusia eta ondoren bertsolariak konzejuko balkoitik: Txirrita, Saiburu —bere lengusua—, Telleri-Txiki eta besteren bat ere bai batzuetan.

Gero idi-apustuak edo demalariak; Altza bertakoak izaten ziran bata bestearen leian. Baziran, garai artan, idi pare onak zituzten baserritarrak. Iru edo lau bai, alkarren setan ibiltzen ziranak eta apustuak ere jokatzen zituzten tarteka.

Arratsaldean, bigarren saioa bertsolariak eta demalariak. Aiek bukatutakoan, illunabarean, etxeko lanak egitera baserritarrak. Eta, lanak egindakoan, baserritar-matrimonioen afaria Martillun tabernan.

Gu ez giñan joan izan afari ortara. Etzuan nai izaten nere emazte difuntak, gero gauean etortzeko urruti gelditzen baizan gure baserria. Baiña matrimonio asko biltzen omen zan, eta oso afari atsegiñak egiten zituztela esaten zuten, jaiei bukaera emateko.

Ala bukatu ziran gure San Martzialak eta Santa Isabelak.

\* \* \*

Baiña badet oraindik, jaiei buruz zerbait esateko. Familiko oiturak kanbiatu egiten dira, kanpoko bat sartzen danean askotan. Idea askotako gizonak bait gera emen.

Nik ondo ezagutzen nuan aitona batek esanak, Altza-ko baserri bateko aitonak, Santa Isabel biaramon batean.

Igandea zan, ain zuzen, urte artan, eta konpadrira illekoa pagatzera joana nintzan, eta aitona ura ere bai.

Illaren lenengo igandean egiten zan konpadriko billera eta, biok an geunden kontu-kontuari zerbait artuaz.

Aitonaren familian, nunbait, oitura zuten Altza-ko jaiak zirala-ta, beren familiko billera Santa Isabel egunean zelebraztekoa.

Alaba zuten etxera esposatua, eta an ere, esan bezela, oitura kanbiatu, nunbait. Beste egun batean zelebrazten asi Santa Isabel eguneko partez. Aitonak pena zuan eguna kanbiatu eta Santa Isabel eguna lanerako jarri zutelako.

Ain zan zelebrea, ta ala esan zidan:

— Aizak, Bartolo, esango dit kontu berri-berria, iri, gaur. Bart arratsean zer esan nion andreari oera joan giñanean: “Aizan, i, Santa Isabel eguna ederki zelebraztu iñau, egun guztia arta-jorran pasatu iñau-ta...”

Pena ura ezin izan zuan barrenean eduki, nunbait. Aitona, umore onekoa eta bertso-zale amorratua zan gañera. Neri askotan, konpadrira joandakoan ala esaten zidan:

— Kantatu itzak bertso zaar batzuk, Bartolo, ik asko dakik-eta.

Ori egia da. Nik orduan bertso asko nekien, eta kantatzen asten nintzanean, pozik egoten zan entzuten.

Gizona ona zan oso. Ez nuan entzun, ez etxean eta ez kanpoan, sesiorik izan zuanik beñere.

Baiña denok badegu zeozer, eta arek ere bazuan: iñoizka geitxo edaten. Nik, ordea, ez nuan beñere ikusi itxura txarrean.

Entzun bai izan nion bere auzoko bati, nola bein, geiegi kargatuta etxera zijoala erori eta lagundu ziola. Lurrean zegoala ala esaten omen zion bere buruari:

— Altxa adi orain, alu alena...! Len edateko baitzan, ba... eta orain eramateko ez...

Etxe ondora iritxi ziranean, esan omen zion lagundu zionari:

— Eskerrikasko, motel, lagundu nakelako. Diru geitxo eraman diat patrikan, eta orrek ondatu niok. Berriz ez al diat egingo olakorik...

Geroztikako konturik ez dakit, baiña bai eiztari amorratua zala. Eiztari gutxi izango zan orduan, eta esaten zuten tiro batekin, bein, bost azeri il zituala. Eta ori etzan gezurra izango, jende askok esaten zuan, beintzat, marka ederra utzita joan zala mundu ontatik eiztari ziranentzat. Nik ez dakit nola izango zan, baiña pentsatzen det azerien kabia billatuko zuala eta kabian bertan ilko zituala. Bestela ezin zitezken bost azeri il tiro batekin. Nolanai ere,



bazuan meritua, aurrena kabia billatu, eta gero ori egiteko.

Eta, orrenbestez, bukatu ditzadan aitonaren kontuak. Nik uste det zeruan egongo dala. Andik lagundu dezaiela ondorengoei.

## Altza-tik Loiola-ra salto

**A**LTZA-KO kontuak eta Altza-ri buruz dezente idatzi detala uste det. Ez dira nik asmatuak, guk geronek ikusiak eta egiñak baizik. Egi mardulak, beraz.

Ni, izan ere, Altza aldera joan-etorri asko egiña naiz, egia esan, gutxienez, berrogei urtean. Urruti egon arren, ni ez nintzan nekatzen. "Gustoko tokian aldapik ez" dio esaerak, eta neri ere, ori gertatuko zitzaidan, seguru asko.

Len esan bezela, bein konpadria bukatu edo desegin eta baserri botatze ikaragarri ura egin geroztik, oso gutxitan izan naiz ni Altza-n.

Artean, eta gero ere bai pixka batean, jaietan Uba-n meza izaten genduan. Baiña orko apaiza ezkondu egin zan, eta or gelditu giñan mezik gabe. Orduan meza entzutera Loiola-ra edo Martutene-ra joan bear. Biak ere, naiko urruti; ia iru bat kilometro egongo dira-ta.

Ni Loiola-ra asi nintzan, eta ala segitzen det azken urte auetan. Beti-beti ez, baiña eguraldiak laguntzean eta aldarte ona daukatenean,

oraindik ere jexten naiz, jai egunetan meza entzutera.

Bereala egin nituan lagunak, batez ere euskaldun zaarrak. Jubilatuen etxean zeuden geienak, eta ni ere an sartu nintzan. Euskaldun gutxi; erdaldun geiago an ere, beste toki askotan bezela. Baiña ala ere, denok lagun.

Garai artan buru egiten zuana edo presidentea euskalduna genduan, bokalak ere bai batzuk, eta ibillaldi ederrak egiten genituan Arantzazu-ra, Arrate-ra, Loiola-ko Santutegira, etabar.

Nik esaten nion, autobusean abiatu aurretik:

— Aitagure bat errezatuko al degu?

— Bai, bai, errezatuko degu.

Txalo joko zuan eta nik aitagurea errezatu. Jendeak erantzun ere bai. Ondo iruditzen zitzaien.

Bilbo-n, Iruña-n, Gasteiz-en eta Lierni-n ere izan giñan. Eta neri, toki oietan, Arantzazu-n, Arrate-n eta Lierni-n adibidez, bazkal aurretik errosarioa errezatzea gustatzen zitzaidan elizan. Jende geienari ere bai. Oso ondo artzen zidaten, batez ere euskaldunak, eta eskertu egiten zidaten. Ni, berriz, oso pozik gelditzen nintzan ura egiñarekin egun guztirako.

Azpeiti-ko Loiola-ra joan giñan batean esan nioten:

— Elizara sartu aurretik eztazio bat errezatu eta San Inazio-ren martxa kantatu bear degu.

Eta denak konforme. Nere gisako lagun bat banuan, bertso eta kantuak gustatzen zitzaizkiona, eta arek asko laguntzen zidan. Oso ondo konpontzen giñan alkarrekin. San Inazio-ren martxa kantatzen ari giñala, bertako pralle batek entzun egin gindun eta eskerrak ematera etorri zitzaigun. Nungoak giñan galdetuz, oso ondo egin genduala esan zigun eta eskerrak eman zizkigun. Lagunak, berriz, neregatik, apaiz baten zerbitzua egiten nuala esan zion.


Orain ez naiz joaten iñora, baiña nere lagunak joaten dira, eta urruti-xamarrera, esaten dutenez, Frintzi-ra eta ez dakit noraiño. Nun eta nola dabilzan esaten didate eta ni konforme gelditzen naiz. Dabilzala, orrelaxe, urte askoan.

\* \* \*

Altza-tik Loiola-ra salto egin edo jexten ari nintzala amasei bat urte izango dira gutxienez-ta, loiolatar egiña nago. Mezetara joaten naitzenean, euskaldun abarrak, gutxi batzuk, kontu-kontari egoten gera.

Lagun bat badet, baserritarra, len Altza-n bizitua, orain Irun-en bizi dana, eta andik Loiola-raiño etortzen da mezetara. Lagunak baditu emen, eta meza entzunda gero, soziedadean egiten dute tertulia. Baserrian bizitu zanean, esne-parrokia Loiola-n zuan eta jende asko ezagutzen du.

Lagun orrek, orain dala urte batzuk, bost bat izango dira, San Isidro eguna igandean tokatu zan batean, esan zidan:



Loiola'ko UBEGI, Bartolo Aierbe bizi dan baserria.

— Bartolo, arratsaldean Altza-ra joango al gera? An izango dira idi-apustuak, eta bertsolariak ere bai. Gaur gure eguna da-ta, goazen...

— Ez, ni ez naiz joango —esan nion.

— Ni joango naiz-ba.

Ondoan zegoan beste lagun batek ala esan zigun:

— Emen bertan zelebratu bear genduke guk San Isidro eguna. Baserritar asko ez gera baiña, len baserrian bizituak bastante gera Loiola-n oraindik. Eguerdian, amabitan edo, meza jarriko degu, eta gero, ordubik edo irurak aldean, bazkaria. Nik enkargatuko ditut meza eta bazkaria; eta bertsolariak ere bai, nai izan ezkeru. Zer iruditzen zaizute?

Ez giñan asko an, zazpi edo zortzi geienez, baiña giñanak konforme aren esanera. Bertan artu zituan gure izenak eta enkargu au eman zigun:

— Zuen auzoko lagunai ere esan; nai badute etorri, nik listan jarriko ditut.

Ala asi, eta amabi bildu giñan lenengo urtean. Eta gero, urtetik urtera, ugaritzen. Martutene aldetik ere etortzen dira bastante, eta lengo urtean ogeitaseitaraiño bildu giñan.

Azkeneko bi urtetan auzoko Kultur Etxeak ere parte artu du gurekin. Bertako enkargatuak ordaindu dizkigu bertsolariak, eta lagun egin gera berarekin. Orrek guri gastuak arindu egiten dizkigu. Aurten ikusiko degu nola mol datzen geran.

Elizan, meza garaian, iru edo lau bertso kantatzen ditut nik, eta asko ixtimatzen dit jendeak. Bazkal-orduan, berriz, bertsolariakin batera aritzen naiz bertso zaarrak kantatzen, Txirrita, Xenpelar, Zapirain eta abarrenak. Berriak ere kantatzen ditut, nolako edo alako, bertsolariakin batera, eta oso ondo pasatzen degu San Isidro eguna, gizatasun ederrean. Aurten ainbestean konforme nintzake.

\* \* \*

San Inaziotan, berriz, Loiola-ko jaiak izaten dira, eta beste gauza askoren artean, bertsolariak ekartzen dituzte. Gure semea nola ibiltzen baidan gai-jartzen eta abar, azken urte auetan gonbidatu egiten naute.

Eguerdian, saioa egin aurretik, amaiketakoa egiten degu, soziedade batean edo bestean, bertso-zale batzuk bertsolariakin. Amaiketakoa egindakoan bertso saioska bat egiteko oitura da, eta, jakiña, orduan ere zirikatu egiten naute, eta ixilik ezin egon.

Ordubatean edo izaten da saio aundia, ta ura entzun ondoren, bazkaltzera famili dena. Egun ortan biltzeko oitura degu-ta. Bazkalon-doan ere saiatzen gera aita-semeak, nola edo ala, bertso zaar eta berriak kantatzen.

## Garizumako elizkizunak

**G**U gazteak giñala, gure errian, Gaintza-n, gañerako erri txikietan ere bai, noski, dotriña zaar ari pasadatxo bat eman bear izaten genion. Etxean giñanak, beintzat, txartelen billa erretorearen etxera edo elizara joateko.

Dotriña galdetzen zuan arek, mandamenturen bat geienez, edo beste zerbait igoal. Bel-durrak bezela egoten giñan txartel billa joateko; erretorearen galderari nola erantzun pentsatzen, askotan.

Baita esposatu aurreko egun batean ere, galdetzen zuan dotriña. Ni neroni ere joan nintzan, eta gogoan det ez niola ondo erantzun egindako galderari.

\* \* \*

Orduan, garizuman, erriko denak egiten zuten Pazkoakoa. Gañerakoan, igandetan, etzan kasik iñor ikusten komunioa artzen.



Banaka batzuk joaten ziran bakarrik. Urtean bein Pazkoakoa egiteko konfesatu eta Jauna artu, eta urte guztirako pakeak egiñak.

Gaur berriz, meza entzuten degunok, nik uste, geienak joaten gerala Jauna artzera. Meza osoagoa izan dedin, ala agintzen ote duan pentsatzen det nik.

Txartel kontuari buruz, nik entzun izan det Fernando Amezketarra-ri gertatua edo berak esana. Ala esaten dute. Txarteletara joan omen zan, eta, erretoreari onoko bertso motx au kantatu:

Errespetoa azaltzen diot  
erantzirikan txapela,  
Dotriña ondo badakit eta  
eman bear dit txartela.

\* \* \*

Aste Santu-ko Ostegun Santu egunean, gure errian, Pazkoakoa jende askok egiten zuan. Goizean etzan mezik izaten, baiña komunioa artu eta listo. Arratsaldean berriz, kalbarioak egiten ziran Gaintza-ko elizatik San Martin ermitara. Eta bueltakoan, ostera elizara, erosarioa errezatuz. Elizkizuna egin, egunari tokatzen zitzaiona, eta eliz-ataria edo zimitoria jendez bete-bete egiten zan.

Ordurako an egoten zan zagi ardoa maiaren gaiñean. Aiuntamentuak jartzen zuan debalde, eta alkatea eta konzejalak, bandejan basuak eta eskuan botilla artu, eta nai zuan guztiari ardoa eman.

Dena gizonezko utsa. Emakumeak, batzuk elizara berriz, Jaunari bixita egitera, eta besteak etxera lan egitera. Gizonezkoak, geienak eramaten zuten ogia eta gazta puskararen bat patrikan. Geienak jaten ikusten ziran, beintzat, ardoa edanez. Edan ere bai, batzuk ondo txo, eta gero etxera zuzen ezin joan. Baiña urrengo goizean, Ostiral Santu egunean, kalbarioak berriz elizatik San Martin ermitara. Baita txintxo asko joan ere geienak.

Gero arratsaldean, Billafranka edo Ordizi-ra joaten zan al zuan guztia prozesioa ikustera. Izugarri ederra izaten zan, eta jendea ere ikaragarri bildu oi zan.

Famili osoak joaten ziran prozesio ura ikustera. Neroni ere izan nintzan urte batzutan. Orrela zelebratzen zan, orduan, Aste Santua, eta egin bearrak obeto egiteko eta fedean sendo jarraitzeko bearrezkoak zirala pentsatzen det. Indar-berritu egiten gaituztela uste det orrelako gauzak; ni artan nago beintzat. Ortan sendo iraun det gaztetatik zartzaroraiño.

Bertso-zale amorratu oietakoa naizelako edo, naiz orain orrelako konturik izan ez, bertsoa eta erlijioa elkarrekin ondo konpondu oi ziran, garai aietan batez ere. Adibide bezela esango det, nik ezagutu nituala gure errian, Gaintza-n, gizasemea eta emakume bat kalbarioaren eztazio denak bertsotan esaten zituztenak. Etzan meritu txikia ura ala egitea.

Gai onekin bukatzeko, bi bertso dijoaz. Lenengoa ez dakit ziur zeñena dan, baiña, uste det Basarri aundiak jarria izango dala:

Euskalerria bertso-zale da  
animaz eta gorputzaz,  
oitura ederra indartu zagun  
txarra bazterrera bultzaz.  
Gauzak zein gozo esateitugun  
ikasi gendun izkuntzaz,  
bertsolariak asko dezake  
Jaungoikoaren laguntzaz.

Bigarren au Pello Errota-k kantatua omen  
da, ikusi edo igarri zionean eriotza alderatzen  
ari zitzaiola:

Auxe esan bear det  
azken-azkenean,  
zer egin beazuten  
iltzen naizenean:  
errosaioa esan  
nere izenean,  
zerura joan dedin,  
Pello, zuzenean.

## Norbait iltzen zanean

**E**MEN bazan beste oitura bat iñor iltzen zanean egiten zana: abisoketa esaten zitzaien. Bi edo iru lagun ibiltzen ziran baserriz-baserri eguerdian edo arratsaldean; geienetan arratsaldetan. Ni neroni ere ibillia naiz bastante aldiz.

Abixua ematerakoan esan oi zan: ze ordutan il zan, gorputza noiz jasoko zan eta illeta edo entiarria noiz izango zan.

Abisatzalle bakoitzak bere ballara izaten zuan eta itzegin egiten zuten, irten aurretik, bakoitzak nundik nora ibili bear zuan, eta lanak bukatutakoan nun bildu bear zuten jakiteko.

Alkarrengana bildutakoan erabakitzen zuten ze ordutan joan apaltzera ildakoaren etxera, gaua bertan pasatzeko urrengo goizerarte. Oitura arek iraun zuan bastante denboran. Goierrian etzan orrelako oiturarik, bestela moldatzen zan jendea nolabait.

Goizean, berriz, gorputza, bere orduan, lau lagun sasoikoak, alturan berdintsuak ziranak, artu bizkarrean eta elizara. Meza edo entiarrua bukatutakoan gorputza artu berriz, eta kanpo-santura.

Altza-n bazan *angailla* esaten zitzaiona gorputza eramateko eta ondo etortzen zan. Bizkarrean artzeko lau kertenekin egindako arma-zoia zan. Kaja aren gañean jarri eta, naiz karga geiago, erosoago eramaten zan gorputza.

Altza partean, beste tokitan ere bai, noski, bide askoan eraman bear izaten zan batzutan gorputza. Eta orregatik, gu bizi geran ballararokoa bazan beintzat, Bustin-Txulo zaneke base-riaren aurrean, maia jartzen zuten atsedena artzeko.

Gorputza mai gañean utzi eta apaiz jaunak Aitagurea edo bere errezoak egindakoan berriz artu eta, Merkader-en egiten zan urrengo geldialdia; an ere errezo berdiñak.

Orain illeta elizkizuna esaten da, baiña guk entiarrua esaten genion, Altza-n beintzat, gorputza aurrean zala ospatzen zan mezari.

\* \* \*

Beste au ere ezagutu genduan, entiarrua asi aurretik, beti ez baiña askotan, bi meza ematen ziran, batera, aldameneko bi aldaretan. Ze entiarro klase zan izaten zala uste det, aurretik mezak edo meza gabe. Meza aiei *atienpoko mezak* deitzen zitzaien; baiña aspaldi galdu zan oitura ura.

Entiarrua asko luzatzen zan meza aiek zira-la-ta. Bestela ere gaur egunekoak baiño luzeagoak izaten ziran orduko entiarruak. Orain laburragoak egiten dira eta jende geiago joaten da, nere ustez.

Garai aietan entiarro geienak goizeko amarretan izaten ziran, baiña orain dala urte batzuk asi ziran arratsaldean edo illunabarrean egiten. Langille jendearentzat obeto etortzen dalako edo izango da; eta orregatik joango da, igoal, len baiño askoz jende geiago.

\* \* \*

Bazan beste oitura xeble bat entiarro ondoren egiten zana: amaiketako debalde ematen zuan ildakoaren familiak.

Ni ez nintzan beiñere gelditu izan amaiketako ura egiten. Lotsatu egin bear zuan an gelditzeak. Etziran asko izango gelditzen ziranak, baiña baziran debaldekoa gustatzen zitzaienak orduan ere, esaten zutenez.

Amaiketako kontua aipatuta, ala esan zidan, bein, edade aundiko pertsona batek:

— Ni ere gelditu nintzan, egun batean, debaldeko amaiketako ori egiten eta lotsaturik aldegin nuan an ikusi nuanarekin; eta ez nintzala geiago geldituko esan nuan. Ogia, gazta eta ardoa ziran artzeko, baiña ori asko ez dala, ikusi nuan bat gazta puska ederra patrikan sartzen etxera eramateko ere!

Ni naiko arrituta gelditu nintzan, baiña neri, arek, egia esango zidan; berak ikusitako kontua zan-da.

Ez da batere pozgarria iñorentzat, baiña munduan beti izan dira eta izango dira ola moduko pertsonak. Galdu zan oitura ura eta obe gañera, nere ustetan. Naikoa izango det ontatik.

## Nere pentsamentu eta iritziak

**G**U, zaarrak batez ere, gaur entzuten ditugun gauzak entzunda, arrituta gelditzen gera askotan.

Baiña, bestaldetik, pentsatzen jartzen naiz eta, gure gazte denboran, erri txikiak batez ere, apaiz jaunaren mendean egoten zirala esango nuke. Alkateak baiño geiago agintzen zuten apaizak. Aren esanera egoten ziran denak.

Orduko kontuak eta gaurkoak ez dira berdinak. Orduan, esate baterako, geiegizkoak izango ziran sinismen kontuak. Gaur, berriz, gutxiegi. Zeiñek artu neurri juxtua gauz oieri? Nik ezin dezaket esan ori.

Guk ikasi genduan dotriñak amar mandamentu ditu, baiña bi mandamentu dira bati-pat, nere ustez, bete bearrekoak: Jainkoa maite gauza guztien gaiñetik edo serbitu, eta lagun urkoa maitatu nork bere burua bezela.



Baiña mandamentu au betetzen al degu? Nik ez uste, eta ez badegu betetzen, ez degu Jainkoa ondo serbitzen, nere ustez.

Mandamentu edo Jainkoaren agindu oiek ondo betetzea ez da erreza izan len. Orain ere ez, eta gero ta zaillago izango da nere ustetan.

Nere iritzi apalean au esango det:

“Gure bizitzako artu-emanak al dan juxtuen eramane edo bete; iñori kalterik ez egin, al bada, eta premian dagonari lagundu, nola edo ala. Esaten dutenez, badago mundu zabalean premian dagon jende ugari-ta. Aieri laguntzeko eman limosna borondate onenarekin. Eta abar. Ori egin ezkerro, an nunbait ibiliko gerala uste det.”

\* \* \*

Beste gauz bat ikusten dana gaurko egunean, ezkontza kontuak asko narrastu zaizkigula. Ajola gabetu egin da jendea.

Badakigu matrimonioko sakramentua ez dala ain erreza ondo eramaten, baiña inportantzi aundikoa da geroko etorkizunerako. Batez ere seme-alabak dituzten gurasoentzako.

Lenengo egin bear dana, beren arteko utsegiteak alkarri barkatu. Danok baigera utsegiteak ditugunak mundu ontan, gutxi edo geiago.

Gero, seme-alaben etorkizuna. Beti izan da kezkarria, eta gaur, zer esanik ez. Badaukate zer pentsatua.

Gurasoak, beintzat, alegindu zaitezte al dan ondoen erakusten eta ejemplo onak ematen,

etxean da kanpoan. Gaztetan ondo ikasia nekez aaztutzen da-ta.

Etxea da aurreneko eskola, eta gurasoak maixu. Baiña guraso, aiton-amona eta eskolak, saia gaitezen danok al dan ondoen azitzen gure aurrak, erakusbide onak emanaz. Eta ez itzez bakarrik. Ea lortzen degun maitasun geixeago gure artean eta mundu osoan.

\* \* \*

Gu, zaar-abarrok, fede sendoa degunok, asko sufritzen degu sinismena orrenbeste oztu zaigun ontan.

Nik esan bear banu, fedea ez da galduko oraindik, oztu eta auldu baizik. Entiarrotan beiñere baiño jende geiago ikusten da; mezetan Jauna artzen ere bai; *Confesión General* oietan, berriz, zer esanik ez; aurrak lenengo Jaun artzea egiten dutenean, eliza gaiñezka. Eta orrek, neretzat, zerbait esan nai du. Ez da itxura bakarrik izango.

Egun batean, elizara ninjoala, iru lagun ikusi nituan etxetik ateratzen, eta irurak "Gurutze Santuaren..." egiñaz atera ziran. Pertsona elduak, baiña etziran ain zaarrak oraindik. Eta neri poza eman zidan ura ikustekak.

Urte asko dira pralle batek esan zidala:

— Egunero etxetik ateratzekoan, danok egin bearko genduke "Gurutze Santuaren...". Gauza ederra da benetan. Artzazu oitura ori, lanera, eguna pasatzera edo biajeren bat egitera zoazenean. Ondo itzuliko zera beti. Ori egingo bage-

nu danok, ez litzateke ainbeste ezbear eta dezgrazi izango.

Pentsatzen det alperrik ari naizela gauz auek idazten. Txorakeriak dirala esango du zenbaitek. Baiña nik lenengo dotriña zaarrear ikasia etzait aaztutzen, eta segitzen diot aitarren egiten etxetik ateratzekoan. Eta baita lotarra joatekoan ere. Ez daukat, gaiñera, damurik eta batere lotsik esateko.

Etxetik noranai joan naizen guztietan ondo eta pozik itzuli naiz beti. Eta orrela jarraituko det onezkero, Jainkoak nai duan arte.

## Bukaera

**L**ANAREN bukaera bezela zerbait idazteko esan didate. Idazten aritzea gustoko lana izan det nere bizitza guztian, eta pozik egingo det. Ez nago aspertua oraindik.

Lenago ere badet papera pranko zikindua, nola edo ala, ez denak txukun-txukun, noski, baiña gustora, eta ez daukat batere penik.

Aspaldi-xamar asi nintzan lan onekin, baiña aurreratua neukala, lengo neguan gaixoaldi bat izan nuan, luze-xamarra, eta idazteari utzita egon naiz denbora dezentean. Etsita ere bai, bukatu gabe geldituko ote zan.

Paseak-pasa, orain bastante ondo nabil, eta Jainkoari eta laguntzalleai esker, ea bukatzeko modua egiten degun.

Badaukat zeïni eskerrak emana: lenengo, zeruko guztion Aitari; Dn. Antonio Zavala-ri; nere seme Joxe eta bere alaba Mirariri, eta abar eta abarri. Asko lagundu didate, bai lenengo liburuan, eta bai oraingoan ere. Eskerrak biotz-biotzez danari.

Beste auek ere ez dauzkat aaztuta uzteko-  
ta, eskerrik beroenak aiei ere: Dn. Josemaria  
Setien gure Gotzai jaunari, eta Loiola-ko Dn.  
Fernando parroko jaunari. Onek berak lagun-  
du zidan gotzaiaren etxera joaten nere lenengo  
liburua eramanez. Bai eskertu ere benetan  
arek, karta mamitsu eta goxo baten bidez.

Garai artan Dn. Imanol Murua zegoan Di-  
putazioko lendakari edo presidente, eta Dipu-  
taziora joan giñan egin bear batera, eta bai  
ondo artu eta dotore erantzun karta batekin,  
nere liburua eskertuz. Ez dauzkat aaztuta oiek  
denak, oso gogoan baizik.

Eta bukatzeko, milla zorion eta pakea izan  
dezazutela danok. Ala izan dedilla, Amen.

# Arkibidea

Itzaurrea .....	7
Antziñako ezkontza eta oiturak .....	13
Ezkontzaren inguruko beste zenbait kontu eta gertakizun .....	20
Aur jaiotzak eta ondorengo oiturak .....	25
Artzaiak eta ardiai illea moztea .....	34
Saskigintza baserrietan .....	41
Zurdille-soka .....	47
Gaztagintza .....	52
Guriña edo mantekilla .....	59
Laborea eta gañontzekoak neurtzeko neurriak .....	62
Morrontza eta izenen ezberdintasuna .....	68
Illargiaren inguruko esamesak .....	74
Bide konponketa eta Malobra .....	81
Etxean ura jartzea .....	85
Gero eta kontrario geiago .....	88
Ganadu ermandade edo kofradiak .....	91
Ganaduakin gertatuak .....	97
Erlezaintza gaztetatik gaurarteraiño .....	105
Lengo diruak edo txanponak .....	122
Galdutako beste zenbait oitura .....	124
San Martzial jaiak .....	132
Altza-tik Loiola-ra salto .....	138
Garizumako elizkizunak .....	144
Norbait iltzen zanean .....	148
Nere pentsamentu eta iritziak .....	152
Bukaera .....	156



1051080  
G-128/97



## Bartolo Ayerbe

Liburu gutxi izango dira, gure artean beintzat, larogei ta amar urteko aiton batek idatzia.

Olakoa degu, bada, Bartolo Ayerbe Jaunak, Goierriko Gaintza errian jaio eta Donostiako Loiola, Ubegi baserrian, bizi danak, gaur eskeintzen diguna.

Gizartea erabat aldatu dala berak iñork baiño obeto daki, leengo mundu zaarrean jaio, azi eta gizon egin ondoren, oraingo mundu berria ikusteraiño iritxi dan ezkerero.

Ala, garai bateko Euskal Erri zaarra du liburu onek gaia: leengo gizakiak, lanak, oiturak, gertaerak, esaerak, bizimodua eta abar. Aren testigantza eman nai izan digu. Eta bai dotore, umoretsu, jator eta zuzen eman ere, kontraera guzia euskera errikoi, bizi, garbi eta aberats batean moldatuta.



Gaintzako Udalaren  
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-43-7

